



**HENRY D. THOREAU**

**Desobedientzia Zibila**

Itzulpena:  
Edu Lartanguren

*mens agitat molem*  
potxo edizioak

*Henry D. Thoreau*

***DESOBEDIENTZIA ZIBILA***

*Itzulpena: Edu Lartanguren*



*Edurne eta Eiderri,  
César eta José Manueli,  
Olatz, Mikel, Alberto, Fernando, Sabino, Iñaki eta Mariori.*



Markos Zapiain idazle eta filosofoa da (Irun, Gipuzkoa, 1963). Besteak beste, artikulu bildumak argitaratu ditu -*Errua eta Maitasuna* (2002)- zein saiakerak -*Zenbait Terrorista* (2003), *la guztiaren funtsaz* (2006), *Txillardegi eta ziminoa* (2007)-. Paperean argitaratu duen azken lana *Talatik tiroka* da (2009).

Blog bat erabiltzen du bere testuak plazaratzeko:

<http://eibar.org/blogak/zapiain>

## AITZINSOLASA

*Luisma Urkizari*

**D**eleuzek zioenez, Ameriketako Estatu Batuek (AEB) nazio-gatazkak imigratze unibertsalaren bidez konpondu zituzten (Marxen ustez proletarizatzeko unibertsalak klase-desberdintasunak gaituzten bezalaxe). AEBetako hiritar ugari europar iraganera begira bizi da, Las Vegasen Koliseoaren eta Partenoiairen kopiak dituzte. Aldiz, Thoreauk azpimarratu zuen AEBek badutela iragana, europarra baino miresgarriagoa: indiarra. New Yorketik Mendebaldera begiratu beharrez, Paris, Erroma eta Atenasera, hobe Ekialdera jo, indiarren lurraldeetara. Hauen kultura benetakoagoa zitzaion gurea baino, lurlean eta haizean sustraituagoa. Jarri zibilizatu eta jarri indiarra, basamortuan edo oihanean, zein orientatuko ote den hobeki. Elikadura osasuntsuagoa zuten, kolesterolik ez. Auzariago egiten zioten aurre oinazeari.

AEB zibilizatu indiarren genozidioaren gainean eraiki zen, eta Thoreauk ez zuen inoiz ahaztu, bere garaian inork aintzat hartzen ez zuen arren. AEBetako etorkin zuriek aspaldi akabatu zituzten indiarra. Baina gaur egun oraindik ezikusia egiten diote haien edozein aztarna eta oroitzapeni. Michel Onfrayk idatzi du ederki Thoreauk

reauri buruz<sup>1</sup>, berari ostu dizkiot aitzinsolas honetako ideia guztiak. Onfrayk kontatu du badela New Yorken mundu osoko arte indigena jasotzen duen museo erraldoi bikain bat, Metropolitan Museum delakoa, bost kontinenteetako edozein bazterretako obrak aurki ditzakezu bertan, baina ez daukate Ipar Amerikako indiarren pieza bakar bat ere.

Era berean, europarrok nekez sartzen dugu amerikarren bat Filosofiaren Historian. Thoreau, gehienez ere, literaturgile gisa dugu ezagun (Albert Sánchez-Piñolen iturri nagusietako bat da, indiarretik franko zuten Kafka eta Henry Miller-ekin batera). Are eskandalagarriago, Thoreau filosofoak nahiago ditu indiarra, egurgilea eta brahmana, pizgarriagoak baitiziazkio bizimodu libre bat asmatzeko orduan, Platon, San Agustín eta Kant baino (inoiz ez ditu aipatzen).

Thoreauk ez zuen natura bere bulegoan eserita goraiatzen; aitzitik, harreman fisiko ezin hurbilagoa zeukan harekin: hegal galduaren edo belar izpiaren xehetasunak aztertzen zituen, oihaneko aldaketak neurtu eta idatziz jaso, zuhaitzera igo habia begiratzera... Naturak irakasgai ugari dauzka gordean; gozatu egiten zuen Thoreauk gordeleku horietan barneratzen, eta sekretu horiek gidari hartuta saiatu zen bere bizimodu filosofiko librea asmatzen.

Ezinezkoa zizaion ordea nortasun eta bizimodu libre hori zibilizazio industrialean gauzatzea. Umearengan naturaren presentzia eta kulturaren absentsia maite zuen. Natura kontrakultura gisa erabili zuen. Natura ezeztatuz eraiki baitugu gure zibilizazioa, bietako batera hurbiltzeak bestetik urrutiratzea dakar. Edonola ere, soilik naturak senda gaitzake kulturatik. Gure kulturak makina motordun bilakarazi gaitu, dirua dugu errege, ezertarako balio ez duten trasteak erosteko grinak itsutzen gaitu, borondatez onartzen dugu bizimodu esklaboa (ordutegi zitalak, besteak beste), gure arteko harremanak penagarriak dira, ametsik gabeko bizimodu zekena eta etsipen otzana dira nagusi. Thoreauk ez du etsiko, eta naturarekin bat eginda sortutako bizitza bikain baten bila ibiliko da.

Thorearentzat, *Indarkeriarik gabeko 500 ekintza* liburuko hitzaurrean Mabel Cañadak idatzi duenaren aurka<sup>2</sup>, ez gara libre sorkuraz, askatasuna ez dagokigu

---

<sup>1</sup> Michel Onfray, *Contre-histoire de la philosophie*-ko seigarren liburukia: *Les radicalités existentielles*, Henry David Thoreau et "le bonheur parfait" Grasset, Paris, 2009, 43-175 orr.

<sup>2</sup> *Indarkeriarik gabeko 500 ekintza*, Manu Robles-Arangiz Institutua, Bilbo, 2009, 7 or.

berez, asmatu beharra dago, sortu. Nork bere moduan: Thorearen jarraitzaile izatea ez da basoan txabola eraiki eta bertan bakartzea, egunero lau orduko ibilaldia eta aintzira izoztuko bainua errepikatzea, baizik nork bere ahalmenak eta askatasuna ahal bezain sakonki eta ederki mamitzeko moduko bizimodua bilatzea, inertzia gorabehera, normalizat jotzen dena eta bestek zugandik espero duena gorabehera.

## BIZITZA

David Henry Thoreau 1817ko uztailaren 12an jaio zen, Concorden, Bostondik iparralderantz, Kanadako mugatik hurbil. 2.000 biztanle zituen orduan. Oihan, muino, arboladi, erreka eta aintzirek inguratzen dute herrixka, natura zoragarriak. Thorearen haurtzarora txango, ibilaldi, kanoa, belar biltze eta bainuek edertu zuten. Txabolak eraiki, zuhaitzetara igo, behin zuhaitz puntan zango artetik mundua nola ageri den begiratu, arrantza...

Haurtzaroko askatasun hori iraunarazi nahia nabari da Thorearen filosofian, baserri giroko ume askok sentitu izan duten oztopo gabezia eta libertate basatia du Thoreau helduak ere helburu. Helduaroan ere bere gisa bizi nahiko baitu, helduen mundu modernoa mespretxatu eta gorrotatu egingo du.

Bere bizialdi ia osoan misantropo gogorra izan zen. Guraso filantropoak zituen haatik, abolizionistak, etxean militanteak ez ezik esklabo iheslariak ere hartzen zituztenak. Kanadan debeku zen esklabotza eta iheslariak AEBetatik Kanadara jotzen zuten. Bidean, abolizionista batzuek lagundu egiten zieten, etxean ezkutatz, jaten emanez... Thoreauk ez zuen gogoko gurasoen etxean horrenbeste jende ibiltzea atzera eta aurrera. Abegikortasuna kritikatu egin zuen, bere betixutasuna azpimarratu.

Ikasketei dagokienez, txikitandik atera zituen nota bikainak. Oso gazte hasi zen grekeratik eta latinetik ingelesera itzultzen. Hala ere, maiz egiten zuen eskolatik piper anaia Johnekin, eta mendira joaten ziren benetan ikastera. Gero, lau urte eman zituen Harvardeko unibertsitate ospetsuan, eta hogeitau urte zeuzkala ikasketa-amaierako hitzaldia idatzi zuen: *Garai modernoetako espiritu komertziala eta bere eragina nazio baten izaera politiko, moral eta literarioaren gain*. Bertan aurki daitezke bere gai nagusi batzuk: espiritu komertzialarenganako gorrotoa, dirua jainkotzearen eta mekanizazioaren kritika eta idolo moderno horien aurkako erresistentziaren goraipatzea.



Thoreau "David Henry" bataiatu zuten, baina berak ordena aldatu eta "Henry David" bilakarazi zuen. Ez zuen jasotako deus bere horretan onartu nahi, izena bezala bizitza ere berak aukeratua eta asmatua nahi izan zuen. Oso gazte zela ekin zion "Egunkari" bat idazteari. 20 urte geroago amaituko zuen: 14 liburuki. Bertan oharra jaso zituen, hitzaldien zirriborroak, liburuen iruzkinak, aldarte-aldaketak eta sentimenduak, gogoetak, belar biltzeak... (Thoreau beti zebilen belarra biltzen, txapelapean zeraman, mikroskopioz aztertzen zuen.) Dena den, Thoreaurentzat idaztearen funtsezko xedea bere burua hobeki ezagutzea eta horrenbestez librea-go bizitzea zen, liburua eratzeaz batera bere burua ere egituratzea.

Maisu jarri zen Concordeko eskola publikoan, baina ez zituen ikasleen aurkako zigor fisikoak onartu eta dimisioa eman zuen. Hurrengo urtean eskola bat ireki zuen anaiarekin batera, eta pedagogia naturazale libertario bat erabili zuten: mendira irteerak goizalban; belarra, zuhaitzak, errekek eta animaliak ezagutu eta aztertu, ilunabarra gozatu; zigor fisikorik ez... Ikasleek esku hartze aktiboa zuten zigorgintzan eta diziplina-prozesuan.

1839an anaiarekin kanoan ibiltzera abiatu zen aste beterako, Merrimack ibaian barrena. Liburu txiki polit batean jasoko zuen gerora egun haien berri.

Anaia hil ondoren, ordurako laguntzen hasia zitzaion Emerson filosofo transzendentalista ospetsuak New Yorkera bidali zuen Thoreau, haren ilobaren tutore; literatur munduan izen bat egitera ere bultzatu zuen. Zortzi hilabete eman zituen New Yorken. Behin Concorde itzulitakoan, aurkakotasun teoriko garbi bat ezarri zuen: New York zibilizazioa da, lilura faltsua eta itxurakeria, aurrerapen teknologikoaren erlijioa, bankaria, sal-eroslea eta kazetaria, hitzontzikeria; aldiz, Concord natura da, benetakotasuna, bizimodu filosofiko eta jakintsua, indiarra, egurgilea eta nekazaria, isiltasun argia.

## **TXABOLA ETA ESPETXEA**

Thorearen bizitza osotik bi gertaera iritsi zaizkigu oroz lehen, bi ekintza nabarmendu izan dira: batetik, bere eskuez txabola txiki bat eraiki zuela basoko txoko batean, Walden aintziraren aldamenean, eta bertan bakartuta bizi izan zela. Bestetik, zergak ordaintzeari uko egiteagatik espetxeratu zutela. Kartzelaldi hau dugu hain zuzen *Desobediencia zibila* testuaren sorburu.

1845ean ekin zion Thoreauk, Emerson filosofoaren lur eremu batean, Walden lakuaren ertzean, txabola bat eraikitzeari. Txabola aintzira ondoan ez zuen jaso soilik praktikotasunari begira. Thorearen hartzaroen gurasoek maiz aldatzen zuten bizilekuz. Behin batean, Thoreauk lauzpabost urte zeuzkala, Bostondik Concordera joan ziren. Baso-zelaiak zeharkatu zituzten, Walden aintzira ingurukoak. Liluratuta gelditu zen Thoreau umea. Bestalde, amonaren lorategitik erreka bat abiatzen zen, Merrimack ibaira zihoana, eta Merrimack horrek inguruko lakuak ureztatzen ditu, Walden barne. Hain zuzen, anaia hil berriarekin Merrimack eta inguruko ibaietan egin zituen kanoa-txangoak. Alegia, txoko hura toki zehatz bat ez ezik Thorearen ume-ametsetako paisaia zoragarria ere bazen. Proustek biziki gustuko zituen Thorearen obra eta jarrera.

Thoreauk Walden aintzira hondorik gabe irudikatzen du, ur sarrera eta irteera barik, mitologiko, betiereko. Bekatuak garbitzeko ura omen du. "Egunkaria"n aintziraren kolore mugagabeen aldaketa eta nabardurak jaso zituen, baita ur-mailaren igoera-jaitsierak, piztiaren arnasaldiak bailiran. Thoreau egunero-egunero bainatzen zen bertan, nahiz ikaragarri hotza izaten den maiz. Jelatuta zegoenean etzan egiten zen biluzik izotz-plakaren gainean. Psikoanalista batzuek amaren altzora itzuli nahi amorratua sumatu dute ohitura horretan.

Txabola txikia zen: 3 bider 4,5 metro, 13 metro koadro. Altzari soil batzuk zeuzkan eta tximinia; kanpoan baratzea.

*Walden edo bizitza basatiaz* liburuak eragin handia izan zuen hippiengan. 80ko hamarraldian hondarribiar bat baino gehiago bakartu zen Jaizkibel inguruan Thoreau eredu. Baina Thorearen bakarraldia idealizatu eta esajeratu egin da. Azken batean, 1845eko uztailaren 4tik (AEBen Independentzia eguna) 1847ko iraila arte baino ez zen bizi izan bertan, 26 hilabetez. Gainera, bi egunean behin Concordera joaten zen, filosofo transzendentalisten bileretara, amatxok prestaturiko anoaren bila...; eta txabolan nekazariak hartzen zituen, baso-mutilak, filosofoak, bidaiariak, esklabo iheslariak... Hori bai, ez zituen hiru aulki baizik, egundo ez zuen taldea eta jendetza gustuko izan. Lagunen bisita atsegin zuen, baina atseginago bisita eza.

Thoreauk, bere bizitza goitik behera jasotzen duten 14 liburukietan, ez zuen inoiz maitemindu zenik jasotzen, ia ez da emakumerik ageri, ama bera ere ez. Aldiz, sentimendu ilun bat erakusten du, gizonik miserableena izateagatik errua, baina sekretua sekula ez dela argituko abisatuz... Zenbait berezilarik masturba-

tzaile porrokatu izateari egotzi dio aldarte goibel hori. Oihartzunaz ere behin baino gehiagotan mintzo da: horrek ere masturbatzaile zoro izan zela erakutsiko omen luke, azken batean bai oihartzunean eta bai onanismoan ez baitzara zure mugetatik irteten, ez diozu gorputza edo ahotsa besteri eskaintzen, harreman osoa gelditzen da norberarenean.

Maitasunezko laudorio bat ez emakume bati baizik eta bigantxa bati egin zion Thoreauk, biziki sakona, biziki hunkitu eta erotikoa. Hain zuzen, Thoreau "taureau" da, "toro", zezen; lacaniano batzuen ustez, gure izenak, izenaren esanahiak, gure joerak baldintzatzen ditu, oharkabean bada ere: ezinbestez maitemindu behar, zezenak bigantxaz.

Espetxealdiari dagokionez, gau bakarra eman zuen barruan. Waldenen bizi zela, 1846an, Concordeko zapatagilearengana zihoala poliziak geldiarazi eta espetxeratu zuen, ez baitzuen ordaintzen gobernuak esklabotzari eusteko eta Mexikoren aurkako gerra elikatzeko erabiltzen zuen bere zergen zatia.

Ezaguna zuen kartzelaria: fidantza ordaindu nahi izan zion berehala, baina Thoreauk ez zion utzi, espetxera nahi zuen. Biharamunean bertan ezezagun batek fidantza ordaindu eta Thoreau askatu egin zuten. Zenbait biografok uste du Thorearen izeko bat izan zela. Azkenik, bere zapata berreskuratu eta mendira joan zen, ahabiak biltzera (oso ona ei da ahabia ikusmena bizkortzeko). 1849an argitaratuko zen espetxeratze hori abiapuntu izan zuen gure *Desobediencia zibila*.

Txabola utzita Waldenetik Concorde itzuli ondoren, lanbide apalen bitartez bizi izan zen: etxeak pintatu, lorategiak zaindu, lurra neurtu, aitari arkatzagintzan lagundu...

Bere buruarentzako askatasuna sortu, hori nahi izan zuen beti: lan finkorik ez, kontsumoa funtsezkoa mugatu, alferrikakoa zeharo ezabatu, loturak ekar ditzaketen emazte, ume edo sendirik ez, ezta adiskide inbaditzaile ere: ahal bezain libre bizitzeko antolatu zuen bizimodua.

Biografoek, hala ere, haustura bat nabarmendu dute Thorearen bizitzan, politizatze gogor batek bizi izan baitzuen azkeneko urteetan. Ziaboga hori Anthony Burnsen eta John Brownen kasuek erabaki zuten.

Burns esklabo iheslari bat zen. Bostonen atxilotu zuten. Abolizionistek bere fidantza ordaindu zuten arren espetxean atxiki zuten. Protesta-manifestazioa zapaltzeko lanetan zebilen polizia bat hil egin zen. Haserre, Estatuak lege berri bat

aldarrikatu zuen, AEBetako hiritarra esklabo iheslariak salatzeraz behartuz. Thoreauk ezin izan zuen jasan eta abolizionisten alde engaiatu zen. Orduan, aurreko bizimodu filosofikoa, txabolan bakartuta eta naturarekin bat eginik bere buruaren bila, interesik eta baliorik gabekotzat jo zuen.

John Brown kapitain bat zen, zuria, abolizionista, dozena bat militanterekin batera komando bat osatu zuena. Brownek hitzaldi bat eman zuen Concorden 1857an; Emerson eta Thoreau entzuleen artean zeuden. Behin batean, Kansasen, Brownek esklabotzaren aldeko bost lagun garbitu zituen. Beste batean, Virginian, Brown armategi batez jabetu zen, esklaboak armez hornitzeko asmoz. Berehala harrapatu zuten ordea, espetxeratu eta urkatu. Thoreauk 1859an *John Brown kapitainaren aldeko alegatua* idatzi eta Concordeko enparantza batean ozenki irakurri zuen. Urte hartan bertan *John Brownen martiritza* argitaratu zuen. Eta 1860an *John Brownen azken egunak*.

1854an, *Walden* argitaratu zuen urtean, tuberkulosia harrapatu zuen. Hiltzera zihoala jakinda, bere liburuen argitalpena apailatu zuen. Uko egin zien analgesikoei: une guztiak sakonki bizi nahi izan zituen, azkenekoak barne. 1862ko maiatzaren 6an hil zen, 44 urte zituela.

## **BIZIMODU XIXTRINETIK ASKATZEN HASTEKO**

Thoreauk bizimodu filosofiko bat mamitzeko bide bat erakutsi digu, berea. Gizarte industrialaren eta modernitatearen kritika du oinarri. Lehen aipatu dugu Thoreauk Harvarden 20 urte zituela idatzi zuen hitzaldia: "Garai modernoetako espiritu komertziala eta bere eragina nazio baten izaera politiko, moral eta literarioaren gain". Bere obra osoaren ernamuina dugu.

Bertan dioenez, gure garaia teknikarien garaia da, ingeniari, bankari eta merkatariena, eta horrek bizimodu sakon eta ederretik urrutiratzen gaitu. Thoreauk ez ditu hiriak gogoko, ez sosa, ez salerosketa, ez industria; nahiago du landa, basoa, buruaskitasun naturala. Kontsumoak eta aberasteak gidaturiko ekoizpena zentzugabea iruditzen zaio eta maiz identifikatzen du filosofia "bizimodu-ekonomiarekin": era soilean bizitzeko behar duguna ekoiztera behar dugu mugatu, horixe da ezin bestekoa den lan bakarra.

Thoreauk ezagunak zituen John Adolphus Etzlerren ikuspuntuak, utopista ekologista teknofilo bati dagozkionak: aurrerapen teknikoak lanaldia murriztea ahalbi-

detuko digu, orobat sufrimendua; teknikari esker lorategi eta paradisu bilakarazi ahalko digu gure Lur hau... Thoreau ere ekologista duzu, baina teknofobia: ez du gu puntako teknologiak saltzen dizkigun aparailuen zinezko beharrik; hegazkinek, igogailuek, hirietako argiteria artifizialak ez gaituzte barrutik hobetzen; industria-iraultzak ez gaitu zoriontsuago egingo, alderantziz baizik. Nolanahi ere, Thoreauk ez du federik inongo iraultza orokorretan, indibiduo zehatzen erreforma moral eta espirituala zaio iraultza ernai eta egingarri bakarra, ez baititu aintzakotzat hartzen gizabanako partikularrak baino.

Thorearentzat bizimodu xixtrina da gurean nagusi. Gizartea, politika zein Estatuak, kontrako eztarrian gelditu zaigun okela ustela dira, goitika eginazten diguna. Erdipurdiko bizitza tentelak bizi ditugu, konformitate koldarraren menpeko. Ondo begiratu gero, "lasaitasun" deritzoguna ez baita desesperazioa baizik. Bizimodu xixtrin honek balio faltasuen bila bultzatzen gaitu: dirua, ohoreak, agintea, jabetza, ospea. Era berean, kontsumo-gizarteak dakartzen bizio eta gurrpil zoroetan katramilatzen gaitu: apeta, erosi, poseditu, kontsumitu, aspertu, osterera ere apeta... Xixtrinak gara orobat besteekiko harremanetan, itxura hutsean eta axalkeria amildua baititugu harreman horiek: irribarre hipokritaren azpiko gorroto lehiakorra, zapatu gauetako mozkor tristea, hitzontzikeria eta ergelkeria hutsala... Oro har, bere buruarekin harreman sakonak ez dituenarena da bizimodu xixtrina.

Putzutik irteten hasteko ez da txarra filosofia. Thoreauk, haatik, filosofia-irakasle franko dugula dio, baina filosofo bakar bat ere ez. Filosofo izatea ez baita gogoeta korapilatsu eta sotilak adieraztea, ezta filosofia-eskolak sortzea ere, baizik jakinduria maitatzea eta honen arabera bizimodu sinple eta independentea mamitzea; eta bizitzak dakartzen arazoaren arteko batzuk konponbidean jartzea, ez soilik teoriarik, praktikan baino. Ezin da akademiara mugatu filosofia, egunerokora behar da ekarri: alegia, bizitza pentsatu eta pentsamendua bizi.

Bide egokiaren bila, botika eupeptiko bat errezetatzen digu Thoreauk, bizitzaren digestioa ederki eramateko pilula filosofiko batzuk. Aurrena, bizitze hutsak dakarren atseginez gozatzen ikasi beharra dago, egunsenti bakoitzaren distira berriagatik zure burua zoriondu. Gainera, zure baitako muzinaren eta laiotzaren etengabeko azpilanari aurre egin behar diozu, zorian eta gozamen-nahi sendo baten bidez. Zoriona eraiki egin behar baita, ez zaigu berez etortzen. Ordea, gure gizarteotan ez gara gure buruaren jabe, makina bilakarazten gaituzte; Thoreauk, aitzitik, jabetza hori beharrezkotzat jotzen du, alienazioa gainditu beharra dago, zure burua behar

duzu zure bizitzaren erdigunean kokatu, ez, ohi bezala, aberastasuna, lana edota prestigioa. Halakoen bila gabiltzala galtzen baitugu bizitza, oharkabean joaten zaizkigu egunik ederrenak. Etorkizunerako uzten dugu beti benetakoa bizitza, halako batean hiltzen garen arte, ia beti itxarondako etorkizun hori heldu baino lehen.

Thorearentzat, ez dago nork bere burua asmatu eta eraikitzea beste biderik, bizimodu osasuntsu, neurritsu eta soila sortzea besterik. Erromatarren "otium"ak, aisialdiak, behar luke nagusi. Ikasi beharko genuke, halaber, negatiboan onuragarria bilatzen, hasiera batean kaltegarri zaigunaren irudiarekin lan egiten, harik eta atsegin bilakatuko zaigun arte, estoikoek erakutsitako bidetik.

Thoreauk bere bizitzan hainbat bider asmatu zuen lehen begiratuan zalantzarik gabeko zoritxartzat jo beharrekoa azkenik atsegin-iturri gisa gozatzen. Esaterako, *Desobedientzia zibila*-n kontatzen digun espetxealdia Concord eta mundua begi berriez maitatzeko akuilu bihurtu zuen. Beste behin, lagun batekin oihanean zela, janaria erretzeko sua piztu, inguruko adaxka batzuk hartu eta zabaldu egin zen ustekabean, istripu larria; baina Thoreau eta laguna muino batera igo eta suzko paisaia bikain batez gozatzeko aukera gisa aprobeixatu zuten, zuhaizti kiskalien jabeek ez bezala ziur aski. Haratustela eta sarraskia bizitzaren garaipen gisa ikusarazten zizkion bere buruari. Eta bere eguneroko ibilaldia oztopatzen zion ekaitza, ostera, bedeinkazio moduan naturarentzat.

Azkenik, hiltzorian zela, bizitzako une trinkoak inoiz baino sakonkiago sentitzeko bultzada sumatu zuen, eta, esan bezala, uko egin zien analgesikoei, agoniari dagozkion uneak goitik behera bizi nahi izan baitzituen, agoniaren sentsazioak poliki nabaritu. Sentsazio horiek bizitzari lotuz gero, hiltzoria eta agonia bigarren mailan gelditzen dira. Ez da pentsatu behar "hil behar dut", heriotza etorkizunari baitagokio eta ez dugu zertan etorkizunaz itsutu; baizik eta "bizirik nago oraindik": horrek orainaldia oparitzen baitizu, bizia sentitzeko eta gozatzeko aukera luzatu. Thorearentzat bizitza ospakizun alai bat da funtsean, jai handi maitagarri bat.

## **ASKATZEN JARRAITZEKO BOST GOGO-JARDUN**

Thoreauk zure burua estatua gisa zizelkatzera akuilatzen zaitu, eta bost gogo-jardun proposatuko dizkizu barne estatua ederra xede, lotura barik eta libre bizitzea xede: zure burua aztertu eta ezagutzea; ametsak bizitzea; bizitza maitatzea; bizimodua sinpletzea; eta gorputz perfektu bat eratzea. Banan-banan aztertuko

ditugu.

Hawaira goaz oporretan, aurki ilargira, baina hurbilen duguna, gure burua, ez dugu ezagutzen. Emersonek zioen bidaiatzea tentelen paradisia dela. Thoreaurentzat kanpoko munduranzko norabidea beharrenean gure baitara daramana behar dugu jorratu, gure baitako kontinente ezezagunen Kristobal Kolon bilakatu, gure barruko mapetan ezkutuan datzana desestali, gure bihotzeko alde ilunak argitu, horiek erabakitzen baitute sarritan egun argiko gure jokabidea.

Bestalde, zuhurtzia estu batek oinak lurrean finkatzeko agintzen digun arren, Thoreauk ukatu egingo du gure desirak errealtatetzat hartzeari ukoa, zibilizazio modernoan gailen, eta gure ametsengana abiatzera gonbidatuko gaitu, irudimena- ren alde egingo du argiki eta garbiki. Aurrena, airean eraiki behar dira gazteluak, asmo liluragarriak egikaritu; soilik ondoren etorriko da zeruko gazteluari oinarri bat emateko lana. Amaieratik hasi beharra dago, eta hasieran amaitu. "Errealitate" deitua bigarren mailan utz dezakegu. Naturak gure bitartez sortzen dituen ametsen konfiantza osoz eman behar diegu bide, normaltasun sozialak ezartzen dizkigun mugak gorabehera.

Hirugarrenik, Thoreauk bizitza maitatzeko aholkatzen dizu. Ez du gustuko kristauen zenbait jarrera: jatorrizko bekatua, sufrimendua bertutetzat hartzeko ma- sokismoa. Uste du gure ohiturak, santuekiko harremanen ondorioz, usteldu egin direla, martirologioak-eta mina bertute gisa saldu baitigute. Konfiantza eduki behar duzu zaren animaliarengan, naturak zuregan dioena aintzat hartu. Eliza jende txepel eta odolbakoak osatutako nahaste-borraste bat iruditzen zaio, eta apaizak, berriz, gonak janzten dituzten emagizonak, pentsamendurik ederrenak gonapean dauzkatenak. Koruen kantua Elizan baino ederragoa ei da igelena basatzetan.

Thoreauk maila berean ipintzen ditu Biblia, Homero eta Shakespeare, Yahve eta Thor, Jesus eta Zoroastro. Guztiak gorai patzen ditu. Baina gogor joko du Elizaren zenbait inplikazio politikoren aurka: kasu, esklabotza iraunarazteko tema.

Thoreauk gorroto du filantropia, ez du hurkoa maitatzeko agindu kristaua maite, ongintzak eta errukiak injustizia iraunarazten omen baitute: erremusina emateak, adibidez, txiroa laguntzara ohitzea dakar. Errukiak ezabatu beharreko sistema iraunarazten du. Dena den, sistema ere ez zaio larregi axola. Anarkistek ez beza- la, Thoreauk iraultza espirituala laudatzen du, gizabanako bakoitzarena: ez gara

gizateria salbatzera etorri, baizik bizimodu filosofiko indibidual bat asmatzera.

Laugarren gogo-jardunak gure bizitza sinpletzea dakar, bizilekua, janzkera, elikadura eta zereginak arintzea. Thoreauk dioenez, bizitza irabazteko ahaleginaren ahaleginez, azkenean galdu egiten dugu: dauzkagun gauzek lotuta gauzkate, gure jabetza eragozpen zaigu eta traba, gure menpekoen menpeko baikara. Bizimodu sinpleak libreago egiten gaitu.

Aurrena, bizilekua sinpletu: ahal bezain soila izan dadila, apaingarririk ez. Antzina bezala, eguraldi txarretik eta piztiengandik babesteko aski eta kito. Horixe bilatu zuen Thoreauk Waldengo txabolan.

Bestalde, nork bere etxea eraikitzea litzateke komenigarriena. Eskolan irakatsi beharko ligukete etxea egiten, ezdeuskeriak irakatsi beharrean; horrela ez ginateke beti hipoteken eta alokairuen menpe biziko.

Hurrena, janzkera ere sinpletu beharko genuke: janztea eguraldiaren erasoe-tatik babesteko balio baitu, eta lotsariak estaltzeko. Aski genuke soineko sinple, funtzional, erabilgarri, iraunkor eta merkea. Arropa zaharra ahal bezain luzaro erabili beharko genuke, adabakiak eta edonolako konponketak lagun.

Moda perbertsio barregarri bat da, eta modaren arabera janztea zure burua kako-altzari edo pertxerotzat hartzea. Gure gizarte txotxoloak gaizki hartzen du "desegoki" janzten den pertsona, edo usain naturala dariona; ondo, berriz, zornea darion arima zikina.

Hirugarrenik, elikadura sinpletu: jateak galdutako indarra berreskuratzea du xede nagusi; beraz, modu sinple, osasungarri eta merkean jan dezakegu, baratzea erabiliz, nork bere garia erein eta ogia eginez... Eskura dauzkagu, halaber, arrantza, ehiza, uzta bilketa.

Apeta garestia eta mizkinkeria baztertu beharrekoak dira. Azukrea, esaterako, beterrabak dakar berez; dena den, azukrerik gabe ere bizi gintezke. Kafea, tea eta alkohola, alferrikako pizgarriak zaizkio; aski dugu ura. Okela ere ez zaio beharrezko Thoreauri. Ez da barazkijale peto, baina badu joera. Thoreaturen elikadura-aszesia egoki kokatzen da bere bizi-aszesi orokorrean.

Laugarren, zereginak sinpletu: bizimodu korapilatsuak baitakartza asperdura, kezka, tristura, melankolia, depresioa eta larridura. Diruari begira lan egiten dugunez, lan gehiegi egiten dugu. Zinez ezinbesteko zaiguna ekoizteko baizik ez bagenu lan egingo, nahikoa genuke astean lan-egun bakarra. Gainerako seiak,



atseden. Aisialdia indartu behar genuke, natura sakonkiago bizi ahal izateko: mai-zago ibili (lau orduko ibilaldia egiten zuen Thoreauk egunero); gogoeta eta kontenplalaritzari denbora luzea eman (orduak eta orduak igarotzen zituen naturari begira estasian).

Bestalde, irakurri bai, komeni da, baina ez literatura zibilizatua, baizik basatia, bizitzako arazo gordinak arakutzen dituen literatura: Homero, Eskilo, Shakespeare... Ez dira hamar liburu baino gehiago behar, baina denak ondo aukeratuak eta onak, eta ez literatura entretenigarria, edo ihes egitekoa, baizik norberaren bizimodu libreago bilakarazten laguntzen duena.

Egunkariak saihestu behar dira: oso gogor epaitzen ditu Thoreauk kazetariak, salbuespen gutxi batzuk gorabehera. AEB gobernatzen duten tirano berriak dirrela dio, gizakion alderik zitalena pizten omen dute. Kazetariak ez dute idazten ordaintzen dietenek irakurri nahi dutena baizik, eta desinformazioaren bidez nazioaren iritzia formateatzen dute. Tenteldu egiten dute irakurlea txutxumutxuen eta zurrumurruren bidez. Garrantzi handiegia ematen diote gertaerari, ez dakarte behar bezalako analisirik. Eta behin-behinekoan dabilta beti plisti-plasta, irauten duenaz ezaxola; baina, ia dena errepikatzen denez, atzoko eta biharko egunkariak ez dira batere desberdinak. Labur: egunkari-irakurlea bere goitikinera itzultzen den zakurraren antzekoa da.

Bosgarren gogo-jardunak gorputzaren perfekzioa ahalbidetuko digu. Aurreko lau gogo-jardunen bitartez sinpletasuna, arintasuna eta neurritasuna lortzen da, gorputz osasuntsu, garbi eta aratza; hortaz, arima akasgabea ere bai. Horrela, Thorearen jakintsua ez da ez hotzaren beldur, ez beroaren edota euritearen beldur. Gose-egarriek ere ez dute izutzen, ezta asperdurak edo basoan galtzeak ere, edota tristurak, etsipenak eta angustiak. Libre da, libertario bat izan daiteke, loturatik gabe bizi eta aske. Heldu da Estatuari desobeditzeko ordua.

## **LIBERTARIO**

Michel Onfrayk uste du Thoreau libertario bat izan zela. "Littré" hiztegiko definizioari ondo egokitzen zaio Thorearen aiurria: libertarioa "askatasun individuala mugatzea inolaz ere onartzen ez duena da, ez gizarte kontuetan, ez politikan." Nola jokatzen du libertarioak bere buruarekin, besteekin, munduarekin?

Beregain duzu Thorearen jakintsua, gai da bakarrik bizitzeko, badaki bere

buruaz pozten, ez ditu besteak behar. Azken batean, besteren zoriona ez dut neuk sentitzen, gehienez ere horren lekuko izan ninteke, baina bakoitzak bere aldetik gozatzen du. Hagineko mina ere, nor berea. Bakarrik egiten dugu amets. Eta inor ezin da nire ordezkari. Gure bakardadea metafisikoa dela onartu beharra dago; baina libertarioak maite ere egiten du bakardade hori. Lagunen bisitekin, esan bezala, Thoreau pozik; bisitarik gabe, pozago.

Besteekiko harremanari dagokionez, izan ere, gizakioi trikuari neguan bezalaxe gertatzen baitzaigu: hurbilegi, elkarri eztena sartu, nahi gabe ere elkar zauritu; urrutiegi, berriz, erabateko bakardadean, inolako komunikaziorik gabe, hotzak hiltzen gaitu. Libertarioa distantzia egokia aurkitzen saiatzen da.

Munduak, azkenik, ez dio ardura Thoreauri. Mundu osoaren deusezteza zuzenean ikusi ahal izateko ez luke alboko kale-kantoiara joateko lanik ere hartuko. Are, munduaren suntsitzea eragozteko bere esku bageko, ez omen luke egingo.

Bestalde, Thoreau libertarioari pairagaitz zaio otzantasuna, domestikotasuna, bai abereengan eta bai gizakiengan, piztia basatiak basati behar du eta patetikoa da otsoa etxabere bilakaraztea. Hiriak patologia indibidual eta kolektiboak eragiten ditu; naturarekin harremanik ez izateak enkoniadura eta goibelaldia dakar. Aitzitik, naturak bakea eta sosegua pizten ditu. Naturaren baretasuna ezagutu dutenek sekula ez dute etsipena, tirania edo menpekotasun espiritual zein politikoa sorra-razi.

Thoreaturen gisako libertarioak bizimodu soila bilatzen du: ez lanik, ez sendirik, ez aberirik; ez inoren ez ezeren menpeko; joan, etorri, alde egin, gura legez: inori azalpenik eman behar ez; ez obeditu, baina ezta gidatu ere, dizipulurik eta eskolarik ez; dagokizun unean bizi eta zure denboraren jabe izan; harremanak, soilik nahi duzunarekin eta, nahi izatean, harremana eten; zure naturari entzun, zure joerak bete, zure baitako bizi indarrak nahi duena onartu; eta ametsak bizi, bizitza amestu, arte-lan bilakarazi.

Edozein gisaz, Thoreauk bere buruari bezperako iritzien kontrakoei eusteko askatasuna ere ematen dio, libertateak zure atzoko usteen menpean ez bizitzea eskatzen baitu. Eta zenbait berezilariren ustez, Thoreaturen azken urteetako jarra-rra politikoa filantropikotzat jo liteke, *Walden*-en nabari den misantropiaren aurka-koztat. Gogora dezagun konbertsio antzeko hori Anthony Burns eta John Brownen aferek erabaki zutela: gobernuak lege bat aldarrikatu zuen esklabo iheslariak sa-

latzera behartuz eta Thoreauk hori Estatuaren gerra-aldarrikapen gisa hartu zuen beraren aurka (aurretik ere iheslariak lagunduak zituen eta bere etxean aboliziozaleen batzarrak eginak... "misantropo" deitu garaian!). Estatuaren erabaki doilor horrek bere onetik atera zuen, naturaren ikuskizunaz patxadaz gozatzea eragotzi, txangoak eta hausnarketak arranguratu...

## **DESOBEDIENTZIA ZIBILAZ**

Michel Onfrayk dioenez libertario bat izan zen Thoreau, bai, baina ez anarkista. Ez zuen proiektu komunitario, komunista, berdinzale edota sozialistarik. Ez zuen iraultza politikoa sinesten, baizik iraultza espiritualean. Anarkistek eta liberalek ez bezala, ez zuen Estatu abolitzeko militatu. Zerga jakin batzuk ez zituen ordaintzen, baina ez zuen zergen sistema arbuatu. Hiritar zintzotzat zuen bere burua, gustura ordaintzen zituen herri-bideak egin ahal izateko zergak. Esklabotza eta Mexikoren aurkako gerra sendotzeko zergak ordaindu beharra izan zen inolaz ere onartu ez zuena, eta horrexerri egin zion zehazki uko.

Thoreau ez dator bat anarkisten baikortasun ireniko aingerutarrarekin, ez du uste Iraultza Handiaren ostean gizakia hobetuko denik, jabetza pribatua deusezteak jelsia ere desagerraraziko duenik; aldiz, libertario pragmatiko gisa dihardu. Estatuaren kontra borrokatuko da baina ez beti eta nonahi, Estatuaren ideia absolutuaren aurka, soilik Estatu gizabanakoaren bizimoduari poxelu zaion heinean. Libertarioak badaki Estatuak ez duela definizioz askatasuna tratatzen; zenbaitean babestu eta bermatu ere, egin dezakeela. Anarkismoaren katekesian nekez kabitzen da halakorik.

Sosegu filosofikoa aztoratu ziolako ekin zion beraz Thoreauk Estatuaren aurkako indarkeriarik gabeko borrokari. Gizabanako gisa galarazi zioten patxada berreskuratzeko asmoz murgildu zen politikan. Bere bizitzako azken urteak eman zizkion, batez ere azkeneko zortziak, turbekulosiak jo ostekoak.

*Desobedientzia zibila* 1849an argitaratu zen. Oso laburra da, filosofia politikoko beste maisulan batzuk bezala (*Borondatezko morrontzaren diskurtsoa*, *Printzea*, *Alderdi Komunistaren Manifestua*). Onfrayk dioenez, *Walden* etikari zaiona zaio *Desobedientzia zibila* politikari.

Liburuko lehenbiziko ideia araberak, gobernu onena gutxien gobernatzen

duena da; eta gobernu perfektua bat ere gobernatuko ez lukeena litzateke.

Bestalde, gobernuak agintea ezartzen dute ez zilegizkoak direlako, baizik eta indarraren jabe direlako, Weber-ek "indarraren monopolio" deituko zuenaren jabe, armadaren, epaitegien, espetxeen eta polizien jabe. Thoreauri erantzun geniezaioke egoera demokratiko batean gobernuari hauteskunde garbiek zilegitasuna ematen diotela; Thoreauk ihardukiko zigukeen Estatuaren funtsa, edozein gisaz, ez dela zilegitasun hori, baizik indarra, polizia eta legea ezartzeko bide irmo eta bulartsuak.

*Printzea*-n Machiavellik politikariari aholkatu zion helburu politikoa lortzeko lehoi bortitz zein azeri maltzur bilaka zedila, komenentziaren arabera; nolana ere, politika, proiektu politikoa, Italiaren batasuna, etikaren gainetik jarri zuen; Thoreauk, ostera, aurrena etika jarriko du, gero politika. Zuzentzat duzuna egizu; ez duzuna, aldiz, legala izan arren, ez egin. Leheren bat ez bazaizu morala iruditzen, ez ezazu bete, ez obeditu lege inmoralei, kontzientzia legearen gainetik baitago, eta lehenago gara gizaki hiritar baino.

Jarrera honen aurka gure artean Arantxa Azurzak eta Joseba Arregik jo izan dute. Bi-biek aldarrikatzen dute legea edozein kasutan bete beharra, eta, bidegabetzat joz gero, adostasunean eta gehingoetan oinarrituta aldatu beharra. Kristautasunari estu loturiko heziketa nozitu dute, eta baliteke horregatik agertzea beren ikuspuntuan legea aura sakratu antzeko batez apaindurik.

Thoreau ez zegokeen ados. Eta, Thorearen jarrerak, Azurza eta Arregirenak ez bezala, faxismoaren aurkako erresistentzia ahalbidetzen du: nazien eta Vichykoen lege antisemitak legezkoak ziren, baina erresistentziak zorionez ez zituen etikotzat onartu eta borrokatu egin zituen. Gaur egun Frantzian lege-agindu bat aldarrikatu nahi omen dute, hiritarra paperik gabeko etorkinak salatzerako; aise irudika liteke Thoreauri zer irudituko zitzaiokeen eta zer jarrera hartuko zukeen.

*Desobedientzia zibila*-k dakarren beste ideia interesgarri bat: bidegabekeriaren eta injustiziaren laguntzaile bilakatzen zara, ez badituzu salatzen, ez bazara haiek abolitzeko borrokatzen. Maila berean jartzen ditu Thoreauk lege zitelen bultzatzaileak eta lege horien aurka ezer egiten ez duten hiritarrak, lege bidegabeak desaktibatzen edo oztopatzen ahalegintzen ez direnak: erantzule, kolaboratzaile eta errudun.

Thoreauk gainera azpimarratzen du Estatuak automatikoki etsaitzat jotzen

duela obeditu aurretik bere kabuz zalantzatzen eta hausnartzen duen edonor.

Eta ez dago arrazoi egokirik esklabotza aldezten duen gobernu bat deusetan ere onartzeko. Errepideak eta eskolak xarmanki egin ditzake gobernu horrek, baina badira bete beharreko gutxienekoak. Ezin da inondik inora bat egin esklabotza zilegitzen duen Estatuarekin. Kontzesiorik ez.

Thorearentzat, ongi da esklabotza amai dadin eskatzea, manifestuak izenpetuz eta abar. Baina are zuzenagoa da intsumisioa, desobedientziatzko ekintza; esaterako, zergak ez ordaintzea.

Lege bidegabeak ez dira bete behar, bistan da; eta, gobernu bidegabearen aurkako kontrabotererik eragingarriena, gizabanakoen ekintza da. Estatuaren injustiziaren aurka borrokatzeko ez duzu Alderdiak zer egin erabaki arte itxaron behar, edo zure taldekak. Ez duzu zertan Iraultza Handiaren zain egon, baizik eta zerorrek, gizabanako zehatz horrek, orain bertan egin beharko zenuke zerbait, al bait arinen iharduki. Egia bada ere lan guztia ezin duzula zeuk bakarrik egin, zerbait egin beharko zenuke lehenbailehen.

Gutxi garateke hasieran; baina, Thoreauren ustez, gutxiengoa garaitezina dateke, bidegabekeria eragoztera serioski deliberatzen delarik. Talde txikiek ondorio handiak ekar ditzakete, blokeoa erabakimenez bilatzen dutelarik. Ez duzu gehiengorik behar erabakigarri bilakatu ahal izateko; gutxiengo batek Estatuak eragotzi dezake: bidea Estatuari aurre egiteko elkartzeko da, intsumisioen antzera sareak eratzea, Onfrayk "Lilliput-hastapen" deritzonaren arabera, Gulliver erraldoia sareztaduran harrapatu eta ibilgetzea lortu zuten txikerren omenez. Behin desobedientzia hedatuz gero, Estatuak ezingo dituzenez desobedientzialari guztiak espetxeratu, bere burua amore ematera derrigortua ikusiko du, makurtu egingo da azkenean. Eta, Estatuak atzera egin eta borroka uzten duenean, iraultza egina dago, iraultza baketsua.

Tolstoi, Luther King, Gandhi, Sabino Ormazabal eta Jose Bovék Thoreauren maisutza aitortu dute. Thoreauren pentsamenduek ondorio nabarmenak izan dituzte historian eta gizabanako askoren jokabidean. Maiz amaitzen du desobedientzialariak espetxean itxirik. Adibidez, militarren aurkako Bovéren ekintzek lau hilabete igaroarazi zizkieten presondegian; McDonald'sen aurkakoek, berriz, hiru hilabete. Azkenik, Bovérentzat, transgenikoak badira legalak, baina bere etikak ez dio bidezkotzat hartzea baimentzen, eta, horrenbestez, bere buruari transgeniko-

-plantazioak erretzea zilegitu zion, ondorioz presondegia pairatu beharko zuela jakin arren, zigor-kode frantziarrak ekintza kriminaltzat jotzen baitu. Oraingo honetan hamar hilabete barruan.

Emerson espetxera joan omen zitzaion bisitan Thoreauri, eta galdetu zion: "Baina zer dela-eta zaude zu hemen?" eta Thoreauk erantzun: "Eta zer dela-eta ez zaude zu hemen?" Alegia, zinez harrigarria, bere burua zintzotzat duenak legedia injustuari beste barik men egitea da. Borrokak espetxeratzea badakar, espetxera. Norbera gainera, bizilaguna zertan ote dabilen jakin guran ibili gabe.

Desobedientzia zibila eragingarria izaten da maiz, eta, besteak beste, Espainiak derrigorrezko soldadutzari dagokionez eta Frantziak transgenikoen aferan atzera egin eta jarrera aldatu behar izan dute. Luther King eta Gandhik ere arrakasta lortu zuten. Hori bai, asesinatu egin zituzten biak.

*Markos Zapiain*



*Henry D. Thoreau*

***DESOBEDIENTZIA ZIBILA***

*Itzulpena: Edu Lartzanguren*





Henry David Thoreau.

## DESOBEDIENTZIA ZIBILA<sup>1</sup>.

**B**at nator, bihotz bihotzez, honako leloarekin: “Gobernurik hoberena gutxien gobernatzen duena da”; eta nire pozerako litzateke hori ahalik eta azkarren eta sistematikoen gauzaturik ikustea. Gauzatzen bada, beste honen baliokidea bihurtzen da azken batean, hau ere nire iritziarekin bat: “Gobernurik hoberena, batere gobernatzen ez duena da”; eta gizonak horretarako prest direnean, hori izango dute gobernutzat. Kasurik hoberenean gobernu aurreabide bat besterik ez da; baina gobernu gehienak normalean, eta gobernu guztiak batzuetan, atzerabide izan ohi dira. Armada iraunkor baten kontrako arrazoiak, asko, funtsezko eta konbentzigarriak izanik, berdin erabil daitezke, azken batean, gobernu egonkor baten kontra ere. Armada iraunkorra gobernu iraunkorraren beso bat besterik ez da. Herriak bere borondatea gauzatzeko aukeratu duen baliabidea

---

*1 Thorearen lan hau 1849. urtean argitaratu zuten lehen aldiz, 'Aesthetic Papers' aldizkarian, eta izenburua honakoa zen: 'Resistance to Civil Government'. Bigarren argitalpena 1866. urtekoa da (Thoreau hil eta lau urtera), liburu formatuan, Thorearen beste lan batzuekin. Titulua: 'Civil Disobedience'. Azken hau aukeratu dugu edizio honetarako, ohikoena delako gaur, eta sinpleena. (Itzultzailearen oharra)*

besterik ez bada ere, gobernua desbidera eta oker dezakete herriaren nahia bete baino lehen. Honen lekuko dugu, gaur, Mexikoren aurkako guda: gobernu iraunkorra bere tresna gisa erabiltzen ari diren gizabanako gutxi batzuen lana; izan ere, hasieran, herriak ez zuen halako neurririk onartuko<sup>2</sup>.

Zer da, bada, Ameriketako gobernu hau, tradizio bat besterik ez bada, tradizio berri xamarra izan ere, bere burua osorik etorkizunera transmititu nahian dabilena baina uneoro osotasun eta zintzotasun pixka bat galtzen ari dena? Gizon bizidun bakar baten adinako indarrik eta sasoirik ez du; gizon bakar batek bere nahiaren arabera markurraraz baitezake. Herriarentzat ere, egurrezko fusil antzeko bat da Gobernua. Halere, ez du horregatik hura gutxiago behar; jendeak tramankulu handi bat behar du eduki, eta haren harrabotsa entzun, buuruan duen gobernu ideia hori asetzeko. Honen bidez erakusten digute gobernuak zein erraza den gizonak menpean hartzea edota beraiek gizonen menpean jartzea, batzuen mesederako. Zoragarria da, onar dezagun. Baina gobernu honek ez du, bere kabuz, inongo ekimenik lagundu, ez bada bidetik azkar kendu denean. Gobernu honek ez du aberria aske gordetzen. Gobernu honek ez du mendebaldeko kolonizatzen. Gobernu honek ez du hezkuntzarik ematen. Ameriketako jendearen prestutasunari esker lortu da egindako gutzia; eta gehiago ere izango zuen egiterik, gobernua, hainbatetan, traban jarri ez balitzaio. Izan ere, gizonak elkarrekin bakean gogo onez uzten saiatzeko tresna da gobernuak; eta, esan bezala, mesederik handiena egiten du, gobernupekoak bake santuan uzten dituenean. Gomazkoak ez balira, merkataritzak eta negozioek ezingo lituzkete gairitu legegileek etengabe bidean jartzen ohi dizkieten trabak. Eta gizon horiek, dituzten asmoengatik ez ezik, euren ekintzen ondorioengatik juzgatuz gero, trenbideetan trabak jartzen dituzten gaiztaginekin parekatzea eta zigortzea mereziko zuketean.

---

*2 Ameriketako Estatu Batuen eta Mexikoren arteko guda 1846. urtean hasi zen eta 1848an amaitu zen. Testu hau argitaratu aurretik Thoreauk hitzaldi gisa plazaratu zuen, 1848ko urtarrilaren 26an, hau da, gerra amaitu baino astebeite inguru lehenago. Dena den, gerraren arrazoietako bat eskla-boak izan zitzaizkela lurraldeak zabaltzeko nahia izan zen.*

Baina zuhurki eta herritar legez mintzatzekotan, euren buruak gobernu gabeko gizontzat jotzen dituzten horiek ez bezala, zera eskatzen dut nik, ez berehala gobernu eza, baizik eta berehalaxe gobernu hobea. Utzi gizakume bakoitzari zer nolako gobernua errespetatuko lukeen adierazten eta horra hura lortzeko lehenengo urratsa.

Azken batean, boterea herriaren eskuetara heltzen den orduan, uzten bazaio gehiengo bati agintera heltzen eta luzaroan agintzen jarraitzen, horren arrazoi praktikoa ez da gehiengo hori zuzenago ibiltzea litekeena dela edota gutxiengoaren oniritzia duela, baizik eta fisikoki indartsuena dela. Kasu guztietan gehiengoaren arabera agintzen duen gobernuak ezin du justizia oinarri izan, sikiera ere gizonak justiziatzat duten horren arabera. Ez al da posible gobernu bat non gehiengoek ez duten birtualki erabakitzen zer den zuzena eta zer okerra, baizik eta kontzientziak? Non gehiengoek soilik kontzientziari eragiten ez dioten aferetan erabakiko duten? Utzi behar al du herritarrek, une batez eta neurririk txikienean bada ere, bere kontzientzia legegilearen eskuetan? Zertarako du orduan gizon bakoitzak kontzientzia bana? Lehenbizi gizonak eta ondoren menekoak izan beharko ginatkeela uste dut. Ez genuke legearekiko errespetua landu behar, zuzentasunarekikoa baizik. Soilik betebehar bat har dezaket nire gain zilegitasunez: beti neuk zuzentzat dudana egitea. Ongi esan ohi da talde batek ez duela kontzientziarik; baina kontzientzia duten gizonen elkarte, elkarte kontzientziatsua da. Legeak ez ditu sekula gizonak apurtxo bat ere zuzenagoak egin; eta, harenganako errespetua dela eta, zintzoak ere zuzengabekeriaren agente bihurtzen zaizkigu egunero. Legearekiko errespetu desegokiaren ondorio natural eta arruntaren adibidetzat, ikus dezakezu soldadu lerro bat, koronela, kapitaina, kaboa, kintoak, bolbora-mutil eta dena, mendian gora eta haranetan barrena, lerro-lerro, gerretara martxan, gogoz kontra eta, ai ene!, senaren eta kontzientziaren kontra, horrek, benetan, martxa oso aldapatsu egiten dielarik eta bihotza estutzen. Lantegi deitoragarrian dabiltzala badakite, zalantza izpirik gabe; baketsuak dira denak berez. Orain, berriz, zer dira? Gizonak akaso? ala bolborategi eta gotorleku mugikorrek, agintean diren gizon lotsagabe batzuen zerbitzuan? Bisita ezazue Itsas Armadaren basea eta marine bat behatu, Ameriketako

gobernu batek sor dezakeen gizon mota, alegia, bere sorginkeriaren bitartez sortu ere: gizatasunaren itzal eta arrasto bat, bizirik eta zutik, eta dagoeneko, esan genezake, armen azpian lurperaturik, hileta doinuz lagundurik.

*Danbor hotsik ez zen entzun,  
ezta hileta doinurik ere,  
Haren hilotza harresira eraman genuenean;  
agur tirorik ez zuen egin soldadu batek ere  
Gure heroia lurperatu genuen hilobiaren gainean.<sup>3</sup>*

Honela zerbitzatzen du jende-multzoak estatua, ez batez ere gizon legez, baizik eta makina gisa, gorputzekin. Horiek dira armada egonkorra eta miliziak, kartzelariak, poliziak, eta sheriff-aren laguntzaileak. Kasu gehienetan ez dago senaren edota zentzu moralaren ariketa librerik; egurraren, lurraren eta harrien pare jartzen dituzte euren buruak; eta, beharbada, badago egurrezko gizonak fabrikatzerik, helburua haiek bezain ongi beteko luketenak. Simaur pilo batek edota txorimalo batek baino errespetu handiagorik ez dute halakoek merezi; zaldien eta zakurren balio mota bera dute. Eta, halere, halakoak hartzen ohi dira herritar prestutzat. Beste batzuek, legegileek, politikariek, abokatuek, ministroek eta, oro har, kargudun gehienek, estatua zerbitzatzen dute batez ere buruekin; eta hausnarketa moralik gutxitan egiten dutenez, berdin ibil daitezke Deabruaren morrontzan, nahi gabe beti ere, zein Jainkoarenean. Bakan batzuek, heroiek, abertzaleek, martiriek, erreformatzaileek zentzu onean, eta gizonek, kontzientziekin ere zerbitzatzen dute estatua eta, halabeharrez, gehienetan kontra egin behar izaten diote; eta, normalean, estatuak etsaitzat hartzen ditu. Gizon zuhurrak soilik gizon den heinean egin dezake mesede, bere burua kondenatu gabe "buztina" izatera "zuloa estaltzeko, haizea sar ez dadin"<sup>4</sup>. Lan hori, gutxienez, bere errautsari utziko dio:

---

*3 Charles Wolf (1791-1823) poetaren 'Burial of Sir John Moore at Corunna' elegiako lehen bertsokak.*

*4 Shakespeare, 'Hamlet', 5. aktoa, 2. eszena, 236-37. bertsokak.*

*Goregi jaio nintzen ni,  
besteren jabetza eta esaneko izateko,  
munduko edozein estaturen  
morroi eta tresna bihurtzeko.*<sup>5</sup>

Bere burua osorik hurkoei ematen diena, ezgauza eta berekoitzat jotzen dute; bere burua erdizka ematen diena, berriz, ongilea eta filantropoa dela diote.

Nola jokatu behar du gaur gizon batek Ameriketako gobernu honekiko? Erantzuten dut ezin duela harekin elkar hartuta ibili zorigaitzik gabe. Ezin dut nire gobernutzat hartu, inolaz ere, esklaboen gobernu ere baden erakunde politiko hori.

Gizon guztiek onartzen dute iraultzarako eskubidea; hau da, gobernuari arbuio eta kontra egiteko eskubidea, haren tiranokeria edo ustelkeria handiak eta jasanezinak direnean. Gaur ez dela hori kasua diote ia denek. Baina hori bai zela kasua, uste dute, 75eko iraultzan<sup>6</sup>. Baten batek esango balit gobernu hura txarra zela atzerritik porturaturiko zenbait salgairi zergak ezartzen zizkielako, ez nioke kasurik egingo, ziurrenik, gai horiek gabe ere molda baininteke. Makina guztiek dute frikzioa; hala ere, sorturiko gaitza kitatzeko adina mesede egiten dute, ziurrenera. Frikzio hori dela eta protesta egitea oker handia litzateke, inolaz ere. Baina frikzioa makinaz jabetzen denean, eta zapalketa zein lapurreta antolatua ditugunean, zera diot, ken dezagun makina hori aldamenetik. Bestela esateko, bere burua askatasunaren babeslekutzat duen nazioaren sei biztanletik bat esklabo denean, eta armada atzerritar batek herri oso bat bidegabe inbaditu eta menperatu eta lege militarpean jarri duenean, ez dut uste goizegi denik gizon zintzook matxinatzeko eta iraultza egiteko. Eta are premiazkoa da matxinatzeko betebeharra, ez delako geurea inbaditutako herria, bai, haatik, armada inbaditzailea.

---

<sup>5</sup> *Shakespeare, 'King John', 5. aktoa, 2. eszena, 78-82 bertsioak.*

<sup>6</sup> *Ameriketako Iraultza, edo Independentzia Gerra, 1775. urtean hasi zen, Lexington eta Concordeko batailekin*

Kontu moraletan askoren artean itzal handia duen Paleyk<sup>7</sup>, *Gobernu Zibilarri Obeditzeko Obligazioa* atalean, betebeharrak zibilik guztiak batean biltzen ditu: onuragarritasuna; eta honela dio: "Gizarte osoaren interesak eskatzen duen heinean, hau da, dagoen gobernua onura publikoari kalte egin gabe aldatzerik edo ukatzerik ez dagoenean, Jainkoaren nahia da, orduan eta bakarrik orduan, dagoen gobernuari obeditzea...Printzipio hau onartuta, desobedientzia kasu bakoitza zuzena ote den erabakitzeko, nahikoa da kalkulatzeko alde batean dagoen arrisku eta kalte kopurua eta bestaldean hura konpontzeko dagoen aukera eta kostua". Honen inguruan, haren aburuz, norberak erabakiko du. Ez dirudi, ordea, Paleyk sekula kontuan izan duenik komenigarritasunaren legearen barruan jarri ezin diren kasuak, zeinetan herri batek zein gizabanakoak justizia egin behar duen kosta ahala kosta.

Itolarrian dabilen bati, indarrez eta bidegabe ohola lapurtu badiot, itzuli egin beharko diot, neu itoko banaiz ere. Hori, Paleyren arabera, ez litzateke onuragarria. Bere bizitza horrela salbatzen duenak, galdu egingo du<sup>8</sup>. Jende horrek esklaboak edukitzeari utzi egin behar dio, bai eta Mexikori gerra egiteari ere, horren kostua herri gisa desagertzea bada ere.

Praktikan nazioek Paleyren arabera jokatzeko dute; baina, inork uste al du Massachusetts zuzen jokatzeko ari denik egungo krisian?

*Estatu zikina, zilarrezko soinekoz jantziriko urdanga, dandarra altxatzen diote, eta arima lokatzenetik arrastaka darama.*<sup>9</sup>

Egia esateko, Massachusetts honetan legea aldatzearen aurkakoak ez dira hegoaldeko ehun mila politikari, baizik eta bertoko ehun mila nekazari eta merkatarik; merkataritza eta nekazaritza arduratuago daude, gizateriaz baino, eta ez dira prest esklaboari zein Mexikori

---

<sup>7</sup> William Paley (1743-1805). *Filosofo ingelesa. Besteak beste, 'The principles of Moral and Political Philosophy' idatzi zuen. Lan hori aipatzen du Thoreauk.*

<sup>8</sup> San Mateo, 10:39

<sup>9</sup> Cyril Tourneur (1611?-1626), *'The revenger's tragedy'*.

justizia egiteko kosta ahala kosta. Ez nabil urruneko etsaiekin ikamikatan, baizik eta etxe ondoan urruneko haiei laguntzen dieten morroiekin, hauek gabe haiek jai izango baitzuketen. Ohituta gaude esatera jendetza ez dagoela prestatuta; baina hobekuntza astiro dator, gutxiengoa ez baita gehiengoa baino hobea edo jakintsuagoa. Ez da horren garrantzitsua zu bezain on diren asko egotea, garrantzitsuagoa da nonbaiten ongi absolutu apur bat izatea; legamia horrek altxatuko baitu ore osoa<sup>10</sup>. Milaka dira esklabotza zein gerraren kontrako direnak, *iritziz*, eta, dena den, haiek amai daitezten ezertxo ere egiten ez dutenak; beraien buruak Washington eta Franklinen seme-alabatzat dituzte eta, eserita eskuak poltsikoetan, esaten dute ez dakitela zer egin, eta ez dute ezer egiten. Libertatea beharrian, librekanbioa lehenesten dute eta lasai irakurtzen dituzte afalostean prezio indizeak, Mexikotik datozen azkeneko albisteekin batera, eta, beharbada, bien gainean seko geratzen dira lo. Zein da gaur gizaseme zintzo eta abertzale baten prezio indizea? Duda-mudatan dabilta, eta deitoratzen, eta batzuetan protesta agiriak sinatzen dituzte, baina ez dute egiten egiazko eta eraginkorrik ezer. Asmo onez itxarongo dute beste batzuek gaitza konpondu arte, geroan deitoratzeko arrazoirik ez izateko. Zuzentasunari, boto merke bat, sostengu ahula, eta *ongi ibili!* bat besterik ez diote emango haien aldamenean igarotzen denean. Gizon bertutetsu bakoitzeko bederatziehun eta berrogeita hemeretzi bertutezale dago. Hala ere, errazago da gauza baten benetako jabearekin tratutan ibiltzea haren behin-behineko zaintzailearekin baino.

Bozkatzea joko mota bat da, dama-jokoa edo backgammon bezalakoa. Nola-halako ñabardura morala dauka, jokatzen baita ongia eta gaitzarekin, moral kontuekin; eta apustua du, halabeharrez, lagun. Boto-emaileen izen ona ez da arriskuan jartzen. Zuzen ustean ematen dut botoa, beharbada; baina zuzentasuna nagusitzea ez da niretzat hil ala biziko kontua. Hori gehiengoaren ardurapean uzteko irrikan nago. Haren betebeharra, hortaz, ez da gai praktikoetara baino harago heltzen. Zuzentasunaren alde bozkatzea ere, horren alde ezer ez egitea da. Zuzentasuna nagusitzea nahiko zenukeela gizonei ahapeka

---

<sup>10</sup> 'Korintoarrei lehen Gutuna'; 5:6



adieraztea da soilik. Gizon zuhur batek ez du utziko zuzentasuna zoriaren eskuetan, ezta hura gehiengoaren indarrez nagusitzea nahi izango ere. Bertute eskasa dago jende multzoen ekintzetan. Gehien-goak, egun batean, esklabotza deuseztatzearen alde bozkutzen badu, esklabotza bost axola zaiolako izango da edota haren botoaren birtartez deusezta daitekeen esklabotza gutxi geratzen delako. Beraiek izango dira orduan esklabo bakarrak. Bere askatasuna botoaren bidez baieztatzen duenak soilik azkar dezake esklabotzaren abolizioa.

Baltimoren-edo ospatzekoa den kongresu baten berri entzun dut: egunkari zuzendariak eta politikari profesionalek, nagusiki, osatuko dute, presidentetzarako hautagai bat aukeratzeko. Baina neuk zera diot: zer axola zaio erabakia edozein gizon independente, argi eta errespetagarri? Ezin al dugu horren zintzotasunaz eta jakinduriaz baliatu, dena dela? Boto independente batzuk ere ezin al ditugu bada izan? Ez al da bada herri honetan kongresuetara joaten ez den gizabanako asko? Ez nonbait: gizon errespetagarria deituriko horrek segituan utzi du bere postua eta aberriarekin etsita dabilela sumatzen dut, aberriak berarekin etsitzeko arrazoi handiagoak baditu ere. Berehala, horrela aukeratutako hautagaietako bat onartzen du, eskura dagoen bakarra delakoan, eta horrela frogatzen du bera ere eskura dagoela demagogoaren edozein asmotarako. Horren botoak ez du gehiago balio eros daitekeen printzipiorik gabeko atzerritarrarena edota bertako saripekoarena baino. Oi gizona den gizona, eta nire auzoak dioen bezala, bizkarrean hezur sendoa daukana! Gure estatistikak oker dira: populazio handiegia agertzen dute. Zenbat gizon dugu herri honetan hiru mila kilometro koadroko? Bat eskas. Ez al du bada Amerikak gizonak hemen bizitzen jartzeko nahia pizten? Amerikarra urritu egin da, Odd Fellow<sup>11</sup> bat bilakatu arte: hura ezagutu daiteke taldean ibiltzeko joera asko garatu duelako eta bere buruarekiko konfiantza sendozein adimen eza nabarmenagatik. Mundura sortzean haren kezka lehen eta nagusia zaharren egoitzak egoki paratuta daudela ikustea

---

*11 The Independent Order of the Odd Fellows, logia bat zen, XVII. mendean Ingalaterran sorturikoa. AEBetan zabaldu zen, 1819. urtetik. Karitate lanetan aritzen ziren.*

da eta gizonzkoen toga<sup>12</sup> janterik duen baino lehen, diru-eske ibiltzea inguruko alargun zein umezurtzak laguntzeko. Aseguru etxearen babesean baino ez da bizitzera ausartzen, zeinak behar bezala hilotzatuko duela agindu dion.

Ez da gizon baten betebeharra, ez behintzat normalean, inongo okerrik zuzentzen ahalegintzera dedikatzea, okerrik handiena bada ere; bestelako kezka izan ditzake gogoan arrazoi osoz, baina badu, bederen, oker horretatik eskuak ateratzeko betebeharra, eta, besterik ez badu egiten ere, ez emateko okerrari laguntzarik praktikan. Beste kontu eta hausnarketetara dedikatzen banaiz, lehenbizi behintzat, inoren lepotik ez nabilela ikusi beharko dut. Askatu beharko dut aurretik, beste horrek ere bere zereginetan ibiltzerik izan dezan. Ikusi, bada, zer nolako kontraesana onartzen den. Nire herrikide batzuei honela entzun izan diet: "Gustuko izango nuke haiek niri esklaboen matxinadaren bat zapaltzen laguntzera deitzea edota Mexikora gerrara joateko agintzea..., ikusiko zuten orduan joango ote nintzatekeen". Haatik, gizon hauetako bakoitzak, euren leialtasunaren bidez zuzenean eta, azken finean, euren diruaren bidez zeharka ere, ordezko bat bidali du. Bidegabeko gudan zerbitzatzeari uko egiten dion soldaduari txalo jotzen diote gerra eragiten duen gobernu bidegabeari uko egiten ez dioten horiek. Txalo-jotzaile horien jokabidea eta autoritatea arbuia eta gaitzesten du halako soldaduak. Emango luke estatua prest legokeela penitentzia egiteko, norbaiti ordaintzeko bera zigor dezan, bekatu egiten duen bitartean, ez ordea, une batez ere bekatu egiteari uzteko. Ordenuaren eta Gobernu Zibilaren izenpean, honela, behartzen gaituzte geure doilorkeria omentzera eta indartzera. Bekatuaren hasierako lotsa pasata, axolagabekeria dator. Morala ez zena amoral-edo bihurtzen da, nolabait esateko, ez oso alferrikoa antolatu dugun bizimodurako.

Okerrik zabalduenari eta iraunkorrenari eusteko, bertuterik desinteresatuena behar da. Gizonik zintzoenak dute joerarik handiena erortzeko abertzaletasunaren bertuteari ikus dakioken akats txikian:

---

*12 Erromako gazteek adinez nagusi bihurtzerakoan (14 eta 18 urte artean) janzen zuten soinekoa, toga virilis edo toga alba (toga zuria) deiturikoa.*

gobernu baten joera eta neurriak gaitzesten dituzten bitartean, sostengu eta leialtasuna eskaintzen dizkioten horiek dira, dudarik gabe, haren sostengatzailerik kontzienteenak eta, sarritan ere, aldaketaren oztoporik handienak. Batzuek Batasuna desegiteko eskatzen diote Estatuari, presidentearen deialdiei muzin egiteko<sup>13</sup>. Zer dela eta ez dute beraiek desegiten Estatuarekin duten lotura eta haren ogasunari zerga ordaintzeari uko egiten? Estatuarekiko duten harremana, ez al da Estatuak berak Batasunarekiko duen berbera? Estatuak Batasunaren aurka ez jotzeko izan dituen arrazoiak, ez al dira beraiek Estatuaren kontra ez aritzeko izan dituzten berberak?

Nolatan ase daiteke gizon bat jakite hutsarekin eta, gainera, lasai ibili? Lasaituko al du bada bera kaltetzen ari direla jakite hutsak? Auzoak txanpon bakar bat bera ere lapurtzen badizu, ez zaitu asetzen jakiteak iruzur egin dizula, ezta dagokizuna ordaintzeko eskatzeak ere; haatik, berehala hartzen dituzu neurri eraginkorrak diru guztia berreskuratzeko eta ziurtatzeko berriz iruzur egiten ez dizutela. Printzipioetatik sorturiko ekintzak –justizia hautemateak eta gauzatzeak– egoerak eta harremanak aldatzen ditu; iraultzailea da mamian eta ez dator guttiz bat iraganeko ezerekin. Ez ditu soilik estatuak eta elizak banantzen, senitartekoak banantzen ditu, ai ene! gizabanakoa banantzen du, eta haren baitan deabruarena eta jainkoarena bereizten du.

Zuzengabeko legeak egon, badaude: obeditu besterik ez al dugu egin behar, ala zuzentzen sailatu? Zuzentzen lortzen dugun arte obeditu behar ditugu, ala besterik gabe hautsi? Hau bezalako gobernu baten agintepean, gizonak uste izaten dute itxaron egin behar dutela gehiengoa legea aldatzearen alde konbentzitu arte. Kontra eginez gero, konponbidea gaitza baino okerragoa izango litzatekeela uste dute. Haatik, Gobernuaren errua da konponbidea gaitza baino okerragoa bada. Hark bihurtzen du okerrago. Zer dela eta ez da Gobernuak prestuago aldatzea igarri eta laguntzeko? Zer dela eta ez du gutxiengo

---

*13 Esklabotza debekatzearen aldeko mugimenduko muturrekoenak Estatu esklabistekiko lotura deuseztatzeko eskatzen zuten. William Lloyd Garrison (1805-1879) zen American Anti-Slavery Society elkartearen burua. AEBetako konstituzioak esklabotza legeztatzen zuela-eta, hura erretzera deitu zuen. Hala egin zuen berak jendaurrean.*



Bozkatzea joko  
mota bat da

jakintsua estimatzen? Zer dela eta egiten du negar eta borroka zauria jaso aurretik? Zer dela eta ez ditu herritarrak adi egotera bultzatzen, bere akatsez ohartarazteko, hobe beharrez? Zer dela eta iltzatzen du beti Kristo gurutzean, eta Lutero zein Koperniko eskomikatzen, eta Washington zein Franklin matxinotzat jotzen?

Pentsa dezake batek gobernuak kontuan hartu ez duen lege-hauste bakarra dela bere aginteari uko egitea apropos eta praktikan. Zer dela eta ez du, bestela, horretarako zigor irmo, egoki eta neurrikorik arautu? Ondasunik gabeko gizon batek, behin bada ere, uko egiten badio berak irabazitako bederatzi txelin Estatuari emateari, kartze-lan sartzen dute, nik ezagututako inongo legek mugatzen ez duen epe baterako, soilik giltzaperatu dutenen erabakiaren menpe. Haatik, laurogeita hamar bider bederatzi txelin lapurtu badizkio Estuari, berehala uzten dute libre.

Bidegabekeria gobernuaren makinak ezinbestean duen frikzioaren atal bat bada, hala bedi, hala bedi. Beharbada gastatu eta leunduko da; ziur makina erabat higatuko dela. Bidegabekeriak malguki, txirrika, soka edo eragingailu propioak baditu, pentsa dezakezu konponbidea gaitza baino okerragoa ez ote den izango. Baina, haren izaerak behartzen bazaitu beste baten kontrako bidegabekeriaren agentea izatera, orduan zera esango dizut: hauts ezazu legea. Zeure bizitza izan dadila makina gelditzeko kontra-frikzioa. Ziurtatu behar dut ez dudala edozein neurritan bultzatzen gaitzesten dudana okerra.

Gaitza konpontzeko Estatuak eskura jartzen dituen bideak erabiltzeari buruz, nik ez dut halako bideen berririk. Luzeegi jotzen dute eta gizon baten bizitza joango da tartean. Baditut beste zereginak ere. Ez nintzen mundu honetara sortu, nagusiki, mundua bizileku ona bihurtzeko, baizik eta, bertan bizitzeko, ona ala txarra izanda. Gizon batek ez du zertan dena egin behar, zerbait baizik. Eta dena egiterik ez badu, horrek ez dakar ezinbestean, zerbait oker egin behar duenik. Ez dut zertan ibili behar eskariak aurkezten Gobernadore edo Legebiltzarrari, ez, behintzat, hauek niri eskariak aurkezteko beharrik ez duten bitartean. Nire eskaerei entzungor egiten badiete, zer egin dezaket orduan? Irtenbiderik ez du utzi Estatuak halakoetan: Konsti-

tuzioa bera dugu gaitza. Esan dudanak eman dezake bortitz, kaskagor eta liskarti; baina bihotz onez eta kontsiderazioz tratatzea da horrela merezi eta estimatzen duen izpiritu bakarra. Horrela gertatzen da onerako aldaketa guztietan: jaiotzak eta heriotzak legez, gorputza astindu egiten dute.

Ez dut zalantzarik honako hau esaterakoan: euren buruak abolizionista izendatzen dituzten horiek berehala eta eraginkortasunez kendu behar liokete sostengua Massachusettsko Gobernuari, pertsoenez zein ondasunez, itxaron gabe gehiengo sinplea osatu eta nagusitzeko eskubidea eskuratu arte. Jainkoa euren alde badute, nahikoa dutela deritzot, beste inoren zain egoteko beharrik gabe. Are gehiago, aldamenekoa baino zuzenago dabilen edozein gizonak gehiengo sinplea osatzen du dagoeneko.

Ameriketako Gobernu hau, edo haren ordezkari Estatuko Gobernua, urtean behin –ez gehiagotan– topatzen dut aurrez-aurre, haren zerga biltzailearen pertsonan. Hori da gizartean ni bezala kokaturiko gizon batentzat Gobernuarekin halabeharrez topo egiteko modu bakarra. Orduan zera esaten dit, argi eta garbi: nire agintea onar ezazu. Harekin tratatzeko modurik sinpleena, eraginkorrena eta, egungo egoera dela-eta, ezinbestekoena, harenganako zein poz gutxi eta maitasun urria dituzun adierazteko, hura une horretan ukatzea da. Nire auzoa, zerga biltzailea, da tratatu behar dudana laguna, ez bainabil paperezko agiriekin borrokan baizik eta pertsonekin, eta hark bere borondatez gobernuaren agentea izatea aukeratu du. Nola jakingo du hark gobernuaren ofiziale gisa, edo gizon legez, zer den eta zer egiten duen, ni, errespetatzen duen bizilaguna, auzokide eta izaera oneko pertsona legez ala ero eta bazter-nahasle gisa tratatu behar ote nauen erabaki beharrean aurkitzen den arte. Ikusi beharko du orduan, bere jatorrasuna kolokan jartzen duen arazoa gairi ote dezakeen bere ekintzari dagozkion gogoeta edo hitz zakarrik gabe. Ondo dakit nik mila, ehun, hamar gizonen –hamar gizon prestuk soilik–, zera! gizon ONDRATU bakar batek, Massachusettsko Estatu honetan, esklaboak edukitzeari utzi eta bere konplizitatea hautsiko balu eta, honen ondorioz, konderriko kartzelan giltzapetuko balute, esklabotzaren

azkena litzatekeela Ameriketan. Hasierak zein xumea dirudien ez du axola, behin zuzen egiten dena, betiko dago egina. Baina nahiago izaten dugu hitz egiten ibiltzea gure misioa deitzen dugun horretaz. Erreformak hamaika kazeta ditu bere alde lanean, baina gizon bat bera ere ez. Nire lagun estimatua eta Estatuaren ordezkaria<sup>14</sup>, Kontseilu Garbaran giza eskubideen arazoa konpondu nahian jo eta su dabilena, Karolinako espetxeekin mehatxatu beharrean, Massachusettsen preso balitz, hau da, bere senideari esklabotzaren bekatua leporatzeko horren prestu dabilen Estatu honetan bertan –nahiz eta egun abegikortasunaren aurkako ekintza bat baino ez duen ikusten haren kontra– Legebiltzarrak ez lioke gaiari erabat muzin egingo hurrengo neguan.

Inor bidegabeki giltzapetzen duen gobernu baten menpean, gizon zintzo bati dagokion tokia kartzela da. Leku egokia egun, Massachusettsek bere izpiritu askeen eta kementsuenentzako egun egokitu duen leku bakarra, kartzelatan da, han Estatuarengandik eta Estatu beraren eskutik apartatuak eta giltzapetuak izan daitezten, euren buruak dagoeneko jarri baitituzte aparte, printzipioak direla eta. Hor aurkitu beharko litzuzke esklabo iheslariak, baldintzapeko askatasunean dabilen gatibu mexikarrak eta bere herriari eginiko kaltea salatzen datorren indioak, toki baztertu baina libreago eta ohoretsuago horretan, non Estatuak, alde beharrean, kontra dituenak sartzen dituen: esklaboak dituen Estatu batean gizon libre batek ohorez erabil dezakeen etxe bakar horretan. Norbaitek uste badu hor barruan haien indarra galdua legokeela eta haien ahotsek Estatuaren belarria jadanik atsekabetzerik izango ez luketela, hau da, pareta horien artean jadanik etsai izango ez zirela, horrek ez daki noraino den egia okerra baino indartsuagoa, ezta ere zein eraginkorrago eta indartsuago borroka dezakeen zuzengabekeria bere soinean apur bat jasan duenak. Eman ezazu boto osoa, ez soilik paper puska bat, zeure eragin osoa. Gutxiengo indarge da gehiengoari men egiten dion bitartean.

---

*14 Samuel Hoar (1778-1856) abokatuaz ari da Thoreau. Massachusettsko Estatuak Charlestonera bidali zuen (Hego Karolina, estatu esklabista) protesta egitera, 1844ean. Izan ere, hegoaldeko portu horretan Massachusettsko marinel beltzak abxilotzen zituzten, legez kanpokotzat zutelako beltz askeak Hego Karolinan sartzea. Isuna ordaindu ezean, esklabo gisa saltzen zituzten. Hoar Estatutik egotzi zuten.*



Gizon zintzo bati  
dagokion tokia  
kartzela da



Gutxiengo bat ere ez da orduan. Geldiezina da, ordea, bere pisu guztiarekin traba egiten duenean. Aukera bada gizon zintzo guztiak kartzelan sartzea ala gerra eta esklabotza gelditzea, Estatuak ez du zalantzarik izango. Mila bat gizonek aurtan zergak ez ordaintzea erabakiko balute, hori ez litzateke neurri bortitz eta odoltsua izango, bai, ordea, ordaintzea eta Estatu ahalbidetzea indarkeria erabiltzeko eta errugabeen odola isurtzeko. Hau da, izan ere, iraultza baketsuaren definizioa, halakorik posible bada, behintzat. Zerga biltzaileak edo beste edozein funtzionariok “zer egingo dut bada?” galdetzen badit, eta hala egin dit dagoeneko batek, nire erantzuna honako hau izango da: “benetan zerbait egin nahi baduzu, utzi kargua”. Menekoak leialtasunari uko egin dionean eta funtzionarioak kargua utzi duenean, orduan egin dago iraultza. Suposa ezazue, halere, odola isuri behar dela; ez al da odolik isurtzen moduren batean kontzientzia zauritzen denean? Zauri horretatik isurtzen dira gizon baten benetako gizatasuna eta hilezkortasuna, eta betiko hiltzeraino odolusten da. Odol jario hori dakusat orain.

Legea hautsi duenaren kartzelatzea ibili dut gogoan, haren ondatsun bahitzea barik, nahiz eta biek xede bera izan, zuzentasunik garbiena defendatzen dutenak, eta, beraz, Estatu ustel batentzat arriskutsuenak diren horiek ez direlako, normalean, asko ibili ondasunak biltzen. Horiei mesede gutxikoa zaie Estatu, besteekin alderatuta, eta zergarik txikiena ere neurrigabekoa iruditu behar zaie, batez ere eskuekin eginiko ezohiko lanaren bitartez ordaindu behar badute. Erabat dirurik gabe biziz gero, Estatuak berak ere zalantzan izango luke hari dirua eskatzea. Gizon aberatsa, berriz, konparazio bekaiztirik ez egitearren, bera aberasten duen erakundeari salduta dago beti. Absolutuki hitz eginez, zenbat eta diru gehiago, orduan eta bertute gutxiago. Dirua gizonaren eta haren gauzen artekoa baita, honek eskuratzen ditu gauzok harentzat; eta ez dago bertute handirik dirua eskuratzean. Diruak erantzun beharreko galdera asko isilarazten ditu, eta, aldiz, galdera bakarra sortzen du, erantzuten zaila baina azalekoa: zertan gastatu? Honen bidez, gizonak oinarri morala galtzen du. Bizitzeko aukerak murriztu egiten dira “erraztasunak” omen diren horiek handitzen diren heinean. Gizon batek, behin aberastutakoan,

bere kulturaren alde egin dezakeen gauzarik hobereena da pobrea zenean zituen egitasmoak gauzatzen saiatzea. Jesu kristok Herodesen aldekoen haien izaeraren araberrako erantzuna eman zien: "Erakutsiezadazue zerga-dirua", esan zuen, eta batek, poltsikotik, txanpon bat atera zuen; erabiltzen baduzue Zesarren irudia daukan txanpona, hark balioztatu eta zirkulazioan jarritakoa, hau da, Estatuaren gizonak bazarete eta Zesarren gobernuaren abantailez pozik baliatzen bazarete, orduan, berea den horretatik zer edo zer itzultzeko eskatzen dizuenean: "Itzuliezazue, beraz, Zesarri Zesarrenak direnak eta Jainkoari Jainkoarenak direnak". Nori zer zegokion jakin gabe utzi zituen, hasieran bezain ezjakin, haiek ez baitzuten jakin nahi.

Nire auzokide librenekin solasean aritzen naizenean, aferaren garrantziaz zein larritasunaz eta lasaitasun publikoari dioten begiruneaz diotena diotela, kontua da, azken batean, ezin dutela bizi egungo Gobernuaren babesik gabe, eta desobedituz gero, euren familiak zein ondasunek jasango lituzketen ondorioen beldur direla. Nik, neure aldetik, ez nuke pentsatu nahi inoiz Estatuaren babesa ezinbestekoa zaidala. Zerga ordaintzeko eskatzen didanean, berriz, Estatuaren autoritateari muzin egiten badiot, laster asko bahitu eta alferrik galduko ditu nire ondasunak eta ni zein nire seme-alabak etengabe zigortuko gaitu horrela. Gogorra da hori. Gizon bati zintzoki eta aldi berean eroso bizitzea ezinezkoa egiten dio honek. Ondasunak pilatzeak ez du, beraz, merezi izango, berriz ere, galduko baitira. Lekuaren bat alokatu edo okupatu behar duzu eta uzta txiki bat besterik ez hazi, eta hura berandu gabe jan. Zure baitan bizi behar duzu, eta zeure ahalmenez, maukak beti jasota eta prest hasteko, eta zeregin askorik gabe. Turkia batean ere badu gizon batek aberasterik, Turkiako Gobernuaren meneko zintzoa bada beti. Konfuziok esan zuen: "Estatua arrazoiaren printzipioen arabera gobernatzen bada, miseria eta pobrezia lotsagarriak dira; estatua ez bada arrazoiaren printzipioen arabera gobernatzen, aberastasunak eta ohoreak dira lotsagarriak"<sup>15</sup>. Ez: nire askatasuna galzorian dagoen urruneko hegoaldeko porturen batetik Massachusettsen babesa eskatzen dudana arte edota sorlekuan,

---

*15 Konfuzio, 'Analektak', VIII. liburua, XIII. atala.*

etxaldea bakebidez eraikitzeari ekiten diodan bitartean, ordain dezaket Massachusettsi leialtasuna zein nire bizitza eta ondasunen gaineko eskubidea ukatzearen prezioa. Gutxiago kostatuko zait Estatuari desobeditzearen zigorra jasotzea, obeditzea baino, zentzu guztietan. Obeditzekotan, gutxiago balio dudala sentituko nuke.

Orain dela zenbait urte, Estatuak etorri zitzaizkidan Elizaren izenean eta apaiz bati laguntzeko diru kopuru bat ordaintzeko agindu zidan; nire aita joaten zen haren peredikua entzutera, baina sekula ere ez neu. "Ordain ezazu", esan zidan Estatuak, "edo kartzelan giltzapetua izango zara". Uko egin nion ordaintzeari, baina, zoritxarrez, beste norbait agertu zen nire ordean ordaintzeko prest. Ezin nuen ulertu zer dela eta ordainarazi behar zaion maisuari apaiza laguntzeko eta ez, berriz, apaizari maisua laguntzeko; ni ez bainintzen Estatuak maisua, haatik, borondateko harpidetzaz sostengatzen nuen neure burua. Ezin nuen ulertu zer dela eta Lizeoak ezin zituen bere zergak luzatu, eta Estatuak eskaera babesteko izan, Elizak bezala. Dena den, eta zinenegotzietan eskatu zidatelako, baieztapen hau paperean jartzea onartu nuen: "Idazki honen bitartez jakin dezatela guztiek, nik, Henry Thoreauk, ez dudala nahi inongo elkarteko kide izan, horretan izena eman ez badut". Udal idazkariari eman nion idazkia; eta hark dauka gordeta. Eliza horren kide izan nahi ez dudanaren jakinaren gainean jarriko, ez dit Estatuak, harez geroztik, halako eskaerarik egin, hartan, aurretik zuen ustea aintzat hartu behar zuela adierazi bazidan ere. Nola izendatu jakin izan banu, izenik eman ez nien elkarte guztietatik izena kendu beharko nukeen orduan, banan bana, baina ez nekien zerranda osoa non aurkitu.

Sei urteotan ez dut gizabanakoen gaineko zergarik<sup>16</sup> ordaindu. Hori dela eta, kartzelan sartu ninduten, behin, gau baterako. Metro erdi eta metro bat arteko harrizko paretekin zein 30 zentimetroko zur eta burdinazko ateak eta argia iragazten zuen burdinsareari so nengoela, harritu egin ninduen erakunde haren zentzugabekeriak,

---

*16 Poll Tax zergaz ari da egilea. XIX. mendera arte, herrialde askotan zerga zuzen mota arruntena zen. Hiritar bakoitzak kopuru finkoa ordaindu behar zion estatuari, zenbat diru irabazten zuen kontuan hartu gabe.*

zarratzeko haragi, odol eta hezurak besterik ez banintz hartzen baininduen. Nire buruari galdetzen nion erabaki ote zuen hura zela ni enplegatzeko modurik hoberena eta ez ote zitzaion sekula bururatu nire zerbitzuez beste modu batean baliatzea. Ni eta nire hirikideen artean harresi bat baldin bazegoen, beste bat bazutela ikusi nuen, igo edota zeharkatzen zailagoa, haiek ni bezain libre izan aurretik. Ez nintzen inoiz preso sentitu eta paretak harrizko eta mortairuzko alferrikako gastu itzela iruditu zitzaizkidan. Zerga ordaindu zuen hiritar bakarra banintz legez sentitu nintzen. Ni nola tratatu ez zekiten, besterik gabe, eta heziketarik gabeko pertsonak bezala portatzen ziren. Mehatxu zein hitz gozo bakoitzarekin huts egiten zuten, nire desiorik handiena harresiaren bestaldean egotea zela uste baitzuten. Irribarrez ikusi nuen atea ixteko nolako lanak hartzen zituzten eta nire gogoe-tak inongo baimen eta oztoporik gabe irten zitezkeela haien atzetik; eta gogoetok ziren gauza arriskutsu bakarra. Ni heldu ezin nindutenez, nire gorputza zigortzea erabaki zuten; umeak bezalatsu, gorroto duten lagunari aurre egin ezin diotenean, haren txakurraren aurka jotzen dute. Estatua ergel xamarra zela ikusi nuen, bere zilarrezko koilaratxoekin arduratuta dabilen neskazaharra bezain izuti, lagunak eta etsaiak bereizi ezinik zebilela, eta gordetzen nion errespetu kon-darra galdu nuen eta errukigarria egin zitzaidan.

Bistan denez, Estatuak, ez dio sekula nahita aurre egiten gizon baten senari, intelektual zein moralari, baizik eta, soilik, haren gorputzari, haren zentzumenei. Estatua ez dago adimen edo zuzentasun handiagorik horniturik. Bai, aldiz, indar fisiko handiagorik. Ez nintzen bortxatua izateko jaioa. Nire erara hartuko dut arnasa. Indartsuena zein den ikusiko dugu. Zer nolako indarra du jendetzak? Soilik behar nazakete nirea baino garaia den lege baten esanetara daudenek. Haiek bezalakoa bihurtzera behartzen naute. Noiztik behartzen ditu jendetzak, bada, gizonak modu batean ala bestean bizitzera. Zer nolako bizimodua litzateke hori? "Dirua ala bizia" botatzen didan gobernu batekin topo egiterakoan, zer dela eta ibili beharko nintzateke dirua emateko irrikan? Estu eta larri dabil hura, beharbada, eta no-raezean. Nik ez daukat laguntzerik. Berak lagundu beharko dio bere buruari, neuk egiten dudana bezala. Negarretan ibiltzeak ez du me-

rezi. Ni ez naiz gizartearen makina ongi ibiltzearen arduraduna. Ez naiz ingeniariaren semea. Ezkurra eta gaztaina elkarren aldamenean erortzen direnean, ez da bata ernatu gabe gelditzen besteari lekua uztearren. Bakoitzak bere legeari jarraiki, ernatu, hazi eta ahal duen bezain eder loratzen dira, bestea, beharbada, itzalpetu eta suntsitzen duen arte. Landare batek ez badu bere izaeraren arabera bizitzerik, hil egiten da; baita gizona ere.

Kartzelan igaro nuen gaua aski berria eta interesgarria izan zen. Sartu nintzenean, presoak jakak erantzirik solasean ari ziren atarian, ilunabarreko giroaz gozatzen. Baina kartzelariak orduan, "tira mutilok, ixteko ordua da", esan zuen. Presoak sakabanatu ziren eta haien urratsen hotsa gela hutsetara itzultzen entzun nuen. Kartzelariak gelakidea aurkeztu zidan: "tipo jatorra eta azkarra" zela esan zuen. Atea itxi zuenean, kapela zintzilikatzeko tokia erakutsi zidan, baita han moldatzeko modua ere. Hilean behin gelak karez margotzen zituzten. Gurea, behintzat, ezin zuriagoa zen, altzariz apalena eta, ziurrenik, hiriko gelarik txukunena. Nongoa nintzen eta nolatan giltzapetu ninduten jakin nahi zuen hark, noski. Kontatu nion, eta, nire txanda heldu zenean, nolatan kartzelatu zuten galdetu nion, gizon zintzoa zela suposatzen bainuen eta, egun ere, hala zela uste dut. "Borda bat erreteza leporatu didate", esan zidan, "baina nik ez dut halakorik egin". Argitu ahal izan nuenez, ziurrenera mozkorturik sartuko zen bordan lotara, eta bertan pipa erretzen hasi..., eta horrela kiskaliko zen borda. Gizon argia zela zioen jendeak, epaiketaren zain hiru hilabete inguru pasata zituen han, eta beste horrenbeste itxaron beharko zuen. Eroso eta zoriontsu samar zegoen, ordea, ostatua doan zeukalako eta ongi artatzen zutela uste zuelako.

Leiho batean jarri zen eta ni bestean, eta kartzelan luze egonez gero, zeregin nagusia leihotik begira egotea litzatekeela ikusi nuen. Berehala irakurri nituen han utzitako idazki guztiak, eta preso ohiek nondik egin izan zuten ihes aztertu zuen, eta barrote bat non zerratu zuten, eta gela hartan egondako hainbaten berri entzun nuen. Hemen ere, historia eta istorioak bazirela aurkitu nuen, espetxearen harresietatik at sekula igarotzen ez direnak. Hau da, ziurrenik, hiriko etxe baka-



Honela zerbitzatzen du jende-multzoak estatua, ez gizonak legez, baizik eta makina legez armada, kartzelariak, poliziak eta gainontzekoak

rra non bertsoak idazten diren, ondoren barnean ibiltzeko paperean, baina sekula ez argitaratzeko. Bertso paper luze bat erakutsi zidaten, gazte batzuk jarritako koplak: ihesaldi batean harrapatu zituzten eta bertsook abestuta hartzen zuten mendekua.

Ahal bezain beste kontakizun atera nizekion kartzela-kideari, berriz ikusiko ez nuelakoan, baina, azkenean, nire ohea zein zen erakutsi zidan, eta argia amatatzera joateko utzi ninduen.

Gaua han etzanda igarotzea herri urrun baten barrena bidaiatzea bezalakoa izan zen, sekula ikustea espero ez nuen moduko herrian. Hiriko erlojuaren kanpaia ordura arte entzun gabe neukala iruditu zitzaidan, ez eta kaleko gaueko zaratak ere; leihoak irekirik egin genuen lo, burdinsarearen barnealdean baitzeuden. Nire jaioterria Erdi Aroaren argitan ikustea bezalakoa izan zen, gure Concord Rhin ibaia bihurtua, eta zaldun zein gazteluak irudikatu nituen. Betiko hiritarren ahotsak ziren, ordea, kaleetan aditzen nituenak. Aldameneko ostatuaren sukaldean egiten zein esaten zenaren ikus-entzule nintzen, nahigabe, bai bizipen berri eta bixia niretzat. Nire jaioterriaren hurbilagoko ikuspegia zen. Haren barne-barnean nengoen. Hango erakundeak ikusi gabe nituen ordura arte. Herriko erakunde berezietako bat da kartzela, eskualde-burua baita. Hango biztanleak zertan ari ziren ulertzen hasi nintzen.

Goizean, ateko zuloatik sartu zizkiguten gosariak, neurrian eginiko latorrizko ontzi karratu luzanga txikietan: barruan litro erdi txokolate, ogi beltza eta burdinazko koilara bat. Ontziak bueltan eskatu zituztenean, sobratutako ogia itzultzekotan izan nintzen, inozo halako! Lagunak hartu eta hura bazkarirako edo afarirako gorde behar nuela esan zidan. Luze gabe, inguruko zelai batean segan aritzeko utzi zuten kanporatzen, egunero bezala, eguerdian itzultzeko. Agurra luzatu zidan, ni berriz ikusiko ote ninduen zalantza zuela esanez.

Askatu nindutenean, norbait tartean sartu eta zerga ordaindu baitzuen, ez nuen egunerokoan aldaketa handirik sumatu, gazte sartu eta buruzuri eta agure ateratzen denak ez bezala. Eta hala ere, nire irudiko, aldaketa handia gertatua zen hirian, Estatuan eta herrialdean, denbora hutsak sor dezakeena baino handiagoa. Are argiago ikusten nuen bizilekutzat nuen Estatua. Inguratzen ninduen jendea, auzo on

edota adiskidetzat noraino nuen hartzerik ikusi nuen; haien adiskidetasuna jaiegunetarakoa soilik zela, zuzen jokatzeko asmo handirik ez zutela; nigandik berezitutako arraza ziren, haien aurreiritziak eta sinakeriak direla-eta, txinatarrak edo malaysiarrak bezala. Gizateriari egiten dioten sakrifiziotan arriskurik ez dutela, ondasunentzat sikiera ere; azken finean, horren noble ez zirela, lapurrak egindakoa lapurrari egiten baitzioten eta arimak salbatzea espero zuten kanpora begirako keinu batzuen eta otoitz bakan batzuen bidez zein noizean behin bide zuzen baina alferrikako batetik ibiltzearen bitartez. Auzoak gogor epaitzea izan daiteke hau, beharbada, uste baitut horietako asko ez direla jabetu ere egin euren herrian kartzela bezalako erakunde bat dutenaz.

Ohitura zen antzina gure hirian, zordun gizagaixoren bat kartzelatik ateratzean, ezagunek hatzak gurutzatzea, espetxe leihoko burdinsarea irudikatzen, eta hatzetatik zeharka begiratuta agurtzea: "ze mouz?". Nire herrikideek, ordea, ez ninduten horrela agurtu. Lehenbizi niri eta gero elkarri begiratzen zioten, bidaia luze batetik bueltan banentor bezala. Zapatariari konpontzeko utzitako oinetako baten bila nindoalarik atxilotu ninduten. Hurrengo goizean askatu nindutenean, mandatua bukatzera abiatu nintzen, eta, konponduriko zapata jantzita, ahabiak biltzera joatekoa zen talde batekin elkartu nintzen; nire gidaritzapean jartzeko irrikan ziren. Ordu erdi batean, zaldia azkar prestatu baitzuten, ahabi-soro baten erdian ginen, geure mendixka altuenetako batean, hiritik hiru kilometrora. Estatua ikusterik ez zegoen orduan inon.

Hauek dira *Nire kartzelak*, kontakizun osoa<sup>17</sup>.

Ez diot errepide-zerga ordaintzeari sekula uko egin, meneko txarra bezain auzo ona izan nahi baitut. Eskolak sostengatzeko eta aberki-deak hezteko dagokidana egiten ari naiz. Ez diot uko egiten zerga ordaintzeari zerga-agiriko atal zehatz batengatik. Estatuari leialtasuna ukatu nahi diot, besterik gabe, eta harengandik aldendu eta zinez libre bizi. Ez da nire ardura nire dolarra nora doan jarraitzea, jarrai-

---

*17'Le mie prigioni' (1832) Silvio Pellicoren lanaren aipamen ironikoa. Pellico nazionalista italiarra izan zen, Carbonari taldekoa, eta zortzi urte eman zituen espetxean. Haren kartzelaketako memoriak asko irakurri ziren 1840ko hamarkadan*



tzerik ahal banu ere, harik eta inori tiro egiteko fusila edo gizona erosten duen arte. Dolarra errugabea da, baina nire leialtasunaren ondorioen jarraipena egitea bada nire ardura. Izan ere, lasai deklaritzen diot gerra Estatuari, nire erara, hura ahal dudan bezala erabiltzen eta harengandik ahal adina abantaila ateratzen jarraituko badut ere, halakoetan ohikoa denez.

Beste batzuek niri eskaturiko zerga ordaintzen badute, Estatu maite dutelako, dagoeneko euren kasuan eginikoa berretsi besterik ez dute egingo, edo hobeto esateko, Estatuak eskatu baino harago lagunduko dute bidegabekeria. Zerga ordaintzen badute zergapeturiko gizabanakoarenganako kezka erratuak bultzatuta, haren ondasuna salbatzeko, edota kartzelatzea saihesteko, alegia, hala egingo dute ongi hausnartu ez dutelako sentimendu pribatuek ongizate publikoa noraino kaltetzen duten.

Hona, beraz, nire jarrera gaur. Halakoetan ezin duzu erneegi ibili, ordea, nahikeriak edota jendearen iritziekiko begirune desegokiak zeure ekinbidea baldintza ez dezaten. Ziurta ezazu zure buruarekin eta unearekin bat datorrena egiten ari zarela soilik.

Batzuetan pentsatzen dut, hara! jende horrek asmo zuzenak ditu, ezjakinak besterik ez dira; nola jokatu jakinez gero, zuzenago ibiliko ziren. Orduan, zer dela eta bultzatu behar ditut nire auzoak ni tratatzera berez egingo ez luketen bezala? Berriz pentsatuz gero, ordea, hori ez da arrazoia nik haiek bezala jokatzeko, ez eta bidea emateko beste inork beste motako kalte handiago bat paira dezan. Berriro, zera esaten diot, batzuetan, neure buruari: hainbat milioi gizonek, sutu gabe, gaizkinahirik gabe, inongo sentipen pertsonalik gabe, txelin bakan batzuk eskatzen dizkizutenean, aukera eman gabe, euren konstituzioa dela-eta, eskaera atzera botatzeko edo aldatzeko eta zeure aldetik aukerarik izan gabe beste milioika gizoni laguntza eskatzeko, zer dela eta jarri beharko zenuke zeure burua indar basati ikaragarri horren pean? Ez diezu horren setati kontra egiten hotzari eta goseari, haizeei eta uhinei. Halako mila halabehar lasai asko onartzen dituzu. Ez duzu zeure burua sutara botatzen. Beste indar hura, ordea, indar basatia izateaz gain giza indarra ere badela iruditzen zait, eta uste dut baditudala harremanak milioika gizon horiekin, eta beste milioi-



Lehenbizi gizonak eta  
ondoren menekoak izan  
beharko ginatekela uste dut

ka gizonekin ere, eta ez soilik piztiekin eta bizigabeko gauzekin eta, horrexegatik, erreklamatzetik badagoela iruditzen zait, lehen-lehenik eta berehala haiek euren Sortzaileari, eta bigarrenik euren buruei. Burua apropos botatzen badut sutara, ordea, suari edo suaren sortzaileari erreklamatzetik ez dudala iruditzen zait, eta neu naiz errudun bakarra. Nire burua konbentzitzerik banu eskubidea dudala gizonen egungo izaerarekin pozik izateko eta haiek horren arabera tratatze-ko eta ez, hainbat alorretan, haiekiko eta neure buruarekiko ditudan nahia eta itxaropenen arabera, orduan, musulman eta fatalista pres- tuak legez, egoerarekin kontentatzen saiatu eta jainkoaren nahia dela esan beharko nuke. Beste ezeren gainerik, indarkeria horri edo indar basati edo natural bati aurre egiterakoan dagoen aldea honakoa da: lehenari aurre egiterik badudala hein handi batean, baina ezin dut espero, harri, zuhaitz eta piztien izaera aldatzea, Orfeok<sup>18</sup> aldatzen zituen bezala.

Ez dut inongo gizon edo nazioarekin ika-mikatan ibili nahi. Ez dut txikikeriatan ibili nahi, bereizketa sotilak egiten edota neure burua auzoen gainerik jarri. Haatik, herrialdearen legeen menpean jartzeko aitzakia baten bila nabilela esan dezaket. Horien menpean jartzeko prestuegi ere banago. Are gehiago, hori dela eta neure burua susma- garriztat jotzeko arrazoirik badut; urtero, zerga-biltzailea hurbiltzen zaidanean, gobernu orokorra eta Estatuko gobernuaren ekintzak eta jarrera zein herriaren izpiritua berriz aztertzeko prest aurkitzen dut neure burua, men egiteko aitzakia bat aurkitzearren.

*Gurasoak adina maite behar dugu herria;  
eta, sekula ere, gure maitasun edo ekintzak  
hari ohore egitetik urruntzen baditugu,  
ondorioak onartu behar ditugu eta arimari irakatsi  
kontzientziaren eta erlijioaren ikasgaia,  
ez eta aginte edo etekin nahia<sup>19</sup>*

---

<sup>18</sup> Greziako mitologian, poeten eta musikarien burua zen Orfeo. Musika eta kantuaren bidez, txoriak, arrainak eta basapiztiak lilura zitzakeen, zuhaitzak zein harkaitzak dantzan jarri eta ibaien ibilbidea aldatu.

<sup>19</sup> George Peele, 'The Battle of Alcazar' (1594).

Estatuak aurki lan hori guztia eskuetatik kenduko didala uste dut, eta orduan ez naiz nire herrikideak baino abertzaleagoa izango. Ikuspuntu baxuago batetik ikusita, Konstituzioa, dituen akats guztiak izanda ere, oso ona da; legeak eta auzitegiak errespetagarriak ditugu oso; Estatu hau eta Ameriketako gobernu hau ere, hein handi batean, gauza miresgarri eta bitxiak ditugu oso; eskertzeko modukoak, askotxok deskribatu dituzten bezala. Baina ikuspuntu zertxobait garaiago batetik ikusita, nik deskribatu bezalakoak dira, eta ikuspuntu are garaiagotik, eta garaienetik, ikusita, nork esango luke zer diren, edota merezi ote duten aztertzea edo gogoan ibiltzea ere?

Dena dela, ez nau gobernuak asko kezkatzen, eta ahal bezain gutxi ibiliko dut hura gogoan. Gobernuaren pean bizi ditudan uneak ez dira asko, mundu honetan ere. Gizon bat pentsaera askekoa, irudimen librekoa, bada, *ez dena* ez bazaio luzaroan *badela* iruditzen, ez dute inoiz gelditzerik izango agintari edo erreformatzaile okerre.

Badakit gizon gehienek nik ez bezala pentsatzen dutela; baina gai hau edo antzekoak aztertzea lanbide dutenek beste inork bezain gutxi konbentzitzen naute. Estatu-gizonei eta legegileei, erakundeen baitan erabat murgilduta egonik, ezinezkoa zaie hura argi eta garbi ikustea. Gizartea mugiarazteaz mintzo dira, baina handik at ez dute aterperik. Baliteke eskarmentu eta adimen handiko gizonak izatea, eta zalantzarik gabe sistema burutsuak eta erabilgarriak ere asmatu izan dituzte. Eskerrak ematen dizkiegu, bihotzez, horien guztiengatik. Baina gizon horien agudezia eta balioa oso zabalak ez diren mугen artean daude. Joera dute ahazteko mundua ez dutela politikak eta komenigarritasunak gobernatzen. Websterrek<sup>20</sup> ez du sekula gobernuaren atzetik dagoena ikusi, eta hori dela-eta, ez du hartaz autoritatez mintzatzetik. Haren hitzak jakinduriaz beterikoak dira soilik dagoen gobernuan funtsezko aldaketa beharrik ikusten ez duten legegileentzat. Pentsalariarentzat, eta betiko legeak sortzen dituztenentzat, berriz, hark ez dio inoiz gaiaren funtsari heldu. Ezagutzen ditut gai hauei buruzko espekulazio bare eta argien bidez luze gabe Websterren adimenaren eta

---

*20 Daniel Webster (1782-1852), Massachusettsko Senatuko kidea. Esklabotza abolitzearen aldeko muturrekoen zein sezesionisten kontra mintzatu zen.*

ahalmenaren mugak agerian utziko lituzketenak. Halere, erreforma-zaile gehienek jardun merkeekin parekatuz gero, eta, oro har, politikarien jakintasun eta hitz-jario are merkeagoekin, Websterrenak ditugu hitz zuhur eta baliotsu bakarrak, eta eskerrak ematen dizkiogu Zeruari harengatik. Alderatzuz gero, hura beti da indartsua, originala eta, batez ere, praktikoa. Halere, haren bereizgarria ez da jakintasuna, zuhurtzia baizik. Legegilearen egia ez da Egia, baizik eta koherentzia, edota komenientzia koherentea. Egia beti dator bat bere buruarekin, eta ez da nagusiki kezkatzen argitzeaz zer justizia izan daitekeen koherente oker jokatzearekin. *Konstituzioaren Defendatzaile* izena ongi merezi du hark, eta hala esan diote. Ukabilkadarik jotzen badu, defentsarako izango da. Ez da aitzindaria, jarraitzailea baizik. Haren aitzindariak 87ko gizonak<sup>21</sup> dira. “Ez naiz sekula saiatu”, dio, “ezta saiatuko ere, ez dut inoiz saiorik babestu, ezta babestuko ere, Estatuak Batasunera ekarri zituen jatorrizko akordioa nahasteko”. Konstituzioak esklabotza legeztatzen duela gogoan duelarik, zera dio: “Jatorrizko itunaren atal bat denez, gorde dezagun”. Zorroztasun eta gaitasun berezia izan arren, ez da gai datu bat bere testuinguru politikotik ateratzeko eta adimenaren aurrean biluzik datzala aztertzeko: esaterako, egungo Amerika honetan gizon bati nola dagokion jokatzeko, esklabotza dela eta. Hori egin beharrean, absolutuki eta gizabanako gisa mintzo dela adierazten badu ere, funsgabeko erantzuna ematera ausartzen da, edo horretara bultzatzen dute –eta, horretatik, zer nolako betebeharrak kode berria ateratu daiteke gizarterako? “Esklabotza nola arautu behar den”, dio, “hura ametitzen duten Estatuetakoa Gobernuen kontua da, boto-emateen aurrean, jabearen, gizatasunaren eta zuzentasunaren lege orokorren aurrean eta Jainkoaren aitzinean erantzule direlarik. Gizatasun sentipenak edota beste edozein arrazoik bultzatuta beste inon sorturiko elkarteek ez dute horretan zeresanik. Niregandik ez dute inongo sostengurik jaso, ezta jasoko ere”.

Egiaren iturbegi garbiagorik ezagutzen ez duten horiek, haren isuria gorago bilatu ez dutenek, alegia, Biblia eta Konstituzioan gelditu

---

21 Ameriketako Estatu Batuetako Konstituzioa idazteko Konbentzioa 1787. urtean egin zuten, *Philadelphia*

dira, zuhurki gelditu ere, eta errespetuz zein apaltasunez, handik edaten dute; baina ur xirripa aintzira honetara edo putzu hartara nondik heltzen den ikusten dutenek, kemena bildu eta erromesaldia jarraitzen dute iturbegirantz.

Ameriketean ez da legegintzarako jeinuz jantziriko gizonik agertu. Urri dira munduaren historian. Badira milaka hizlari, politikari eta hitz ederreko gizon; baina gaur egungo arazo gatazkatuak konpontzeko gai den mintzalari batek ere ez du oraindik ahoa zabaldu. Eloquentzia elokuentziarengatik maite dugu eta ez, adieraz dezakeen egiagatik edota susta dezakeen heroitasunagatik. Gure legegileek ez dute oraindik ikasi librekanbioa eta askatasuna, batasuna eta zuzentasuna zein balioitsuak diren nazio batentzat. Ez dute jeinu edota talenturik konparazioz apalak diren gaienezako: zerga eta finantzarako, merkataritzarako, industria eta nekazaritzarako. Kongresuko legegileek mintzatzeko trebetasuna izango balitz gure gidaritza bakarra, eta herriaren eskarmentu egokiaren eta kexu eraginkorrek zuzenduko ez balute, Amerikak ez lioke luzaroan eutsiko nazioen artean duen postuari. Orain dela mila eta zortziehun urte idatzi zuten Testamendu Berria, beharbada esateko eskubiderik ez badut ere; non da, ordea, legegintzaren zientziarako isurtzen duen argiaz baliatzeko behar adinako jakituria eta trebetasun praktikoa duen legegilea?

Neure burua Gobernuaren autoritatearen menpean jartzeko irrikan naiz, nik baino gehiago dakiten eta trebeago diren horiek gogotsu obedituko baititut, eta, gauza askotan, hainbeste ez dakiten edo horren iaio ez diren beste horiek ere bai. Autoritate hori, ordea, ez da garbia oraindik: guztiz zuzena izateko, gobernatuen baimena eta onarpena behar du. Nire pertsona eta ondasunen gain ezin du hark inongo eskubiderik izan, nik emandakoaz aparte. Monarkia absolututik mugatura dagoen aurrerapena, eta monarkia mugatutik demokraziara, gizabanakoarekiko zinezko errespeturantz eginiko aurrerapena da. Filosofo txinatarra ere behar bezain jakintsua izan zen gizabanakoa inperioaren oinarritzat hartzeko. Demokrazia al da, ezagutzen dugun moduko demokrazia, alegia, gobernugintzan egin daitekeen azken hobekuntza? Ezin al da giza eskubideen ezagupen zein antola-

ketarantz beste aurrerapausorik egin? Estatu zinez aske eta ilustraturik ez da izango harik eta Estatuak gizabanakoa indar garaiagotzat eta independentetzat onartzen eta gizabanakoarengandik indar eta autoritate oro datozkiola ametitzen eta horren arabera tratatzen duen arte. Plazer hartzen dut irudikatzen azkenean gizon guztiekiko zuzen izaten lortuko lukeen Estatuak, gizabanakoa auzo gisa, begirunez, tratatuko duena; bere lasaitasunaren kontrakotzat hartuko ez lukeena gizon bakan batzuk harengandik aparte, harekin nahastu gabe, haren baitatik at bizitzea, betiere, auzoen eta hurkoen betebeharrak guztiak konplutuko zituzketen gizonak. Halako fruiturik eman eta heldu ahala erortzen utziko zukeen Estatuak bidea prestatuko zion Estatuarekin perfektuago eta bikainago bati. Azken hau ere imajinatu dut, baina ez dut inon ikusi oraindik.







## Desobedientzia Zibila haurrei azalduta Donald B. Johnsonen marrazkiak Thorearen inguruan

**D**B. Johnson ilustratzaile estatubatuarra Thorearen idazkiekin liluratuta dabil gaztetatik. Pentsalariaren bizitzako hainbat pasarte haurrentzako liburu bihurtu ditu, eta horiekin arrakasta handia izan du AEBetan. Tartean dago *Henry mendira igotzen da (Henry Climbs a Mountain)*, Thorearen kartzelaldia kontatzen duena.

Lan horretarako egin zituen hainbat zirriborro berreskuratatu ditu, liburu honetan argitaratzeko.

Istoria osorik irakurri edo egileaz gehiago jakin nahi duenarentzat:

*<http://www.henryhikes.com>*


# Henry mendira igotzen da




Henry zapatariarengana zihoan, baina Max zerga-biltzaileak gelditu egin zuen: "Henry -esan zion- ez dituzu zergak ordaindu". "Nekazariei esklaboak izaten uzten dien estatu bati ordaintzea? Bai zera!", esan zuen Henryk.



"Ordaindu beharko duzu, edo kartzelara joan", esan zuen Samek.  
"Eraman nazazu bada kartzelara", esan zuen Henryk.  
Eta Samek espetxera eraman zuen.




Danba! Itxi zen atea. Henry ohean etzan zen eta horma zuriei zein sabai zuriari begiratu zien. Zapatarik gabeko oina hormaren aurka jarri zuen. "Beste oinetakoa izan nahiko nuke", pentsatu zuen.



Arkatzak atera zituen poltsikotik eta txoriak zein zuhaitzak marrazten hasi zen.



Zuhaitzaren azpian, bide bat marraztu zuen; erreka gurutzatzen eta mendira igotzen zuen bidexka. Marrazturiko botak busti zituen Henryk.



Orduan atea ireki egin zen. Sam zen.



"Norbaitek zure zerga ordaindu du", esan zuen Samek. "Zer moduzkoa da aske izatea?"



Henryk irribarre egin zuen. "Mendi oso garai baten tontorrean egotea bezalakoa da!"



Eta zapatariarengana joan zen, zapata pare berria erostera.



# *Civil Disobedience*

**Henry David Thoreau**

I heartily accept the motto, "That government is best which governs least"; and I should like to see it acted up to more rapidly and systematically. Carried out, it finally amounts to this, which also I believe--"That government is best which governs not at all"; and when men are prepared for it, that will be the kind of government which they will have. Government is at best but an expedient; but most governments are usually, and all governments are sometimes, inexpedient. The objections which have been brought against a standing army, and they are many and weighty, and deserve to prevail, may also at last be brought against a standing government. The standing army is only an arm of the standing government. The government itself, which is only the mode which the people have chosen to execute their will, is equally liable to be abused and perverted before the people can act through it. Witness the present Mexican war, the work of comparatively a few individuals using the standing government as their tool;

for in the outset, the people would not have consented to this measure.

This American government--what is it but a tradition, though a recent one, endeavoring to transmit itself unimpaired to posterity, but each instant losing some of its integrity? It has not the vitality and force of a single living man; for a single man can bend it to his will. It is a sort of wooden gun to the people themselves. But it is not the less necessary for this; for the people must have some complicated machinery or other, and hear its din, to satisfy that idea of government which they have. Governments show thus how successfully men can be imposed upon, even impose on themselves, for their own advantage. It is excellent, we must all allow. Yet this government never of itself furthered any enterprise, but by the alacrity with which it got out of its way. It does not keep the country free. It does not settle the West. It does not educate. The character inherent in the American people has done all that has been accomplished; and it would have done somewhat more, if the government had not sometimes got in its way. For government is an expedient,

by which men would fain succeed in letting one another alone; and, as has been said, when it is most expedient, the governed are most let alone by it. Trade and commerce, if they were not made of india-rubber, would never manage to bounce over obstacles which legislators are continually putting in their way; and if one were to judge these men wholly by the effects of their actions and not partly by their intentions, they would deserve to be classed and punished with those mischievous persons who put obstructions on the railroads.

But, to speak practically and as a citizen, unlike those who call themselves no-government men, I ask for, not at one no government, but at once a better government. Let every man make known what kind of government would command his respect, and that will be one step toward obtaining it.

After all, the practical reason why, when the power is once in the hands of the people, a majority are permitted, and for a long period continue, to rule is not because they are most likely to be in the right, nor because this seems fairest to the minority, but because they are physically the strongest. But a government in which the majority rule in all cases can not be based on justice, even as far as men understand it. Can there not be a government in which the majorities do not virtually decide right and wrong, but conscience?--in which majorities decide only those questions to which the rule of expediency is applicable? Must the citizen ever for a moment, or in the least degree, resign his conscience to the legislator? Why has every man a conscience then? I think that we should be men first, and subjects afterward. It is not desirable to cultivate a respect for the law, so much as for the right.

The only obligation which I have a right to assume is to do at any time what I think right. It is truly enough said that a corporation has no conscience; but a corporation on conscientious men is a corporation with a conscience. Law never made men a whit more just; and, by means of their respect for it, even the well-disposed are daily made the agents on injustice. A common and natural result of an undue respect for the law is, that you may see a file of soldiers, colonel, captain, corporal, privates, powder-monkeys, and all, marching in admirable order over hill and dale to the wars, against their wills, ay, against their common sense and consciences, which makes it very steep marching indeed, and produces a palpitation of the heart. They have no doubt that it is a damnable business in which they are concerned; they are all peaceably inclined. Now, what are they? Men at all? or small movable forts and magazines, at the service of some unscrupulous man in power? Visit the Navy Yard, and behold a marine, such a man as an American government can make, or such as it can make a man with its black arts--a mere shadow and reminiscence of humanity, a man laid out alive and standing, and already, as one may say, buried under arms with funeral accompaniment, though it may be,

“Not a drum was heard, not a funeral note,  
As his corse to the rampart we hurried;  
Not a soldier discharged his farewell shot  
O'er the grave where out hero was buried.”  
The mass of men serve the state thus, not as men mainly, but as machines, with their bodies. They are the standing army, and the militia, jailers, constables, posse comitatus, etc. In most cases there is no free exercise whatever of the judgement or of the moral sense; but they put themselves on a level

with wood and earth and stones; and wooden men can perhaps be manufactured that will serve the purpose as well. Such command no more respect than men of straw or a lump of dirt. They have the same sort of worth only as horses and dogs. Yet such as these even are commonly esteemed good citizens. Others--as most legislators, politicians, lawyers, ministers, and office-holders--serve the state chiefly with their heads; and, as the rarely make any moral distinctions, they are as likely to serve the devil, without intending it, as God. A very few--as heroes, patriots, martyrs, reformers in the great sense, and men--serve the state with their consciences also, and so necessarily resist it for the most part; and they are commonly treated as enemies by it. A wise man will only be useful as a man, and will not submit to be "clay," and "stop a hole to keep the wind away," but leave that office to his dust at least:

"I am too high born to be propertied,

To be a second at control,

Or useful serving-man and instrument

To any sovereign state throughout the world."

He who gives himself entirely to his fellow men appears to them useless and selfish; but he who gives himself partially to them in pronounced a benefactor and philanthropist.

How does it become a man to behave toward the American government today? I answer, that he cannot without disgrace be associated with it. I cannot for an instant recognize that political organization as my government which is the slave's government also.

All men recognize the right of revolution; that is, the right to refuse allegiance to, and to resist, the government, when its tyranny or its inefficiency are great and unendurable.

But almost all say that such is not the case now. But such was the case, they think, in the Revolution of '75. If one were to tell me that this was a bad government because it taxed certain foreign commodities brought to its ports, it is most probable that I should not make an ado about it, for I can do without them. All machines have their friction; and possibly this does enough good to counter-balance the evil. At any rate, it is a great evil to make a stir about it. But when the friction comes to have its machine, and oppression and robbery are organized, I say, let us not have such a machine any longer. In other words, when a sixth of the population of a nation which has undertaken to be the refuge of liberty are slaves, and a whole country is unjustly overrun and conquered by a foreign army, and subjected to military law, I think that it is not too soon for honest men to rebel and revolutionize. What makes this duty the more urgent is that fact that the country so overrun is not our own, but ours is the invading army.

Paley, a common authority with many on moral questions, in his chapter on the "Duty of Submission to Civil Government," resolves all civil obligation into expediency; and he proceeds to say that "so long as the interest of the whole society requires it, that it, so long as the established government cannot be resisted or changed without public inconveniency, it is the will of God. . .that the established government be obeyed--and no longer. This principle being admitted, the justice of every particular case of resistance is reduced to a computation of the quantity of the danger and grievance on the one side, and of the probability and expense of redressing it on the other." Of this, he says, every man shall judge for himself. But Paley appears never to have contemplated



those cases to which the rule of expediency does not apply, in which a people, as well and an individual, must do justice, cost what it may. If I have unjustly wrested a plank from a drowning man, I must restore it to him though I drown myself. This, according to Paley, would be inconvenient. But he that would save his life, in such a case, shall lose it. This people must cease to hold slaves, and to make war on Mexico, though it cost them their existence as a people.

In their practice, nations agree with Paley; but does anyone think that Massachusetts does exactly what is right at the present crisis?

“A drab of stat,

a cloth-o’-silver slut,

To have her train borne up,  
and her soul trail in the dirt.”

Practically speaking, the opponents to a reform in Massachusetts are not a hundred thousand politicians at the South, but a hundred thousand merchants and farmers here, who are more interested in commerce and agriculture than they are in humanity, and are not prepared to do justice to the slave and to Mexico, cost what it may. I quarrel not with far-off foes, but with those who, neat at home, co-operate with, and do the bidding of, those far away, and without whom the latter would be harmless. We are accustomed to say, that the mass of men are unprepared; but improvement is slow, because the few are not as materially wiser or better than the many. It is not so important that many should be good as you, as that there be some absolute goodness somewhere; for that will leaven the whole lump. There are thousands who are in opinion opposed to slavery and to the war, who yet in effect do nothing to put an end to them; who, esteeming themselves children of Washington and Franklin, sit

down with their hands in their pockets, and say that they know not what to do, and do nothing; who even postpone the question of freedom to the question of free trade, and quietly read the prices-current along with the latest advices from Mexico, after dinner, and, it may be, fall asleep over them both. What is the price-current of an honest man and patriot today? They hesitate, and they regret, and sometimes they petition; but they do nothing in earnest and with effect. They will wait, well disposed, for other to remedy the evil, that they may no longer have it to regret. At most, they give up only a cheap vote, and a feeble countenance and Godspeed, to the right, as it goes by them. There are nine hundred and ninety-nine patrons of virtue to one virtuous man. But it is easier to deal with the real possessor of a thing than with the temporary guardian of it.

All voting is a sort of gaming, like checkers or backgammon, with a slight moral tinge to it, a playing with right and wrong, with moral questions; and betting naturally accompanies it. The character of the voters is not staked. I cast my vote, perchance, as I think right; but I am not vitally concerned that that right should prevail. I am willing to leave it to the majority. Its obligation, therefore, never exceeds that of expediency. Even voting for the right is doing nothing for it. It is only expressing to men feebly your desire that it should prevail. A wise man will not leave the right to the mercy of chance, nor wish it to prevail through the power of the majority. There is but little virtue in the action of masses of men. When the majority shall at length vote for the abolition of slavery, it will be because they are indifferent to slavery, or because there is

but little slavery left to be abolished by their vote. They will then be the only slaves. Only his vote can hasten the abolition of slavery who asserts his own freedom by his vote.

I hear of a convention to be held at Baltimore, or elsewhere, for the selection of a candidate for the Presidency, made up chiefly of editors, and men who are politicians by profession; but I think, what is it to any independent, intelligent, and respectable man what decision they may come to? Shall we not have the advantage of this wisdom and honesty, nevertheless? Can we not count upon some independent votes? Are there not many individuals in the country who do not attend conventions? But no: I find that the respectable man, so called, has immediately drifted from his position, and despairs of his country, when his country has more reasons to despair of him. He forthwith adopts one of the candidates thus selected as the only available one, thus proving that he is himself available for any purposes of the demagogue. His vote is of no more worth than that of any unprincipled foreigner or hireling native, who may have been bought. O for a man who is a man, and, and my neighbor says, has a bone in his back which you cannot pass your hand through! Our statistics are at fault: the population has been returned too large. How many men are there to a square thousand miles in the country? Hardly one. Does not America offer any inducement for men to settle here? The American has dwindled into an Odd Fellow--one who may be known by the development of his organ of gregariousness, and a manifest lack of intellect and cheerful self-reliance; whose first and chief concern, on coming into the world, is to see that the almshouses are in good repair; and, before yet he has lawfully donned the virile

garb, to collect a fund to the support of the widows and orphans that may be; who, in short, ventures to live only by the aid of the Mutual Insurance company, which has promised to bury him decently.

It is not a man's duty, as a matter of course, to devote himself to the eradication of any, even to most enormous, wrong; he may still properly have other concerns to engage him; but it is his duty, at least, to wash his hands of it, and, if he gives it no thought longer, not to give it practically his support. If I devote myself to other pursuits and contemplations, I must first see, at least, that I do not pursue them sitting upon another man's shoulders. I must get off him first, that he may pursue his contemplations too. See what gross inconsistency is tolerated. I have heard some of my townsmen say, "I should like to have them order me out to help put down an insurrection of the slaves, or to march to Mexico--see if I would go"; and yet these very men have each, directly by their allegiance, and so indirectly, at least, by their money, furnished a substitute. The soldier is applauded who refuses to serve in an unjust war by those who do not refuse to sustain the unjust government which makes the war; is applauded by those whose own act and authority he disregards and sets at naught; as if the state were penitent to that degree that it hired one to scourge it while it sinned, but not to that degree that it left off sinning for a moment. Thus, under the name of Order and Civil Government, we are all made at last to pay homage to and support our own meanness. After the first blush of sin comes its indifference; and from immoral it becomes, as it were, unmoral, and not quite unnecessary to that life which we have made.

The broadest and most prevalent error requires the most disinterested virtue to sustain it. The slight reproach to which the virtue of patriotism is commonly liable, the noble are most likely to incur. Those who, while they disapprove of the character and measures of a government, yield to it their allegiance and support are undoubtedly its most conscientious supporters, and so frequently the most serious obstacles to reform. Some are petitioning the State to dissolve the Union, to disregard the requisitions of the President. Why do they not dissolve it themselves--the union between themselves and the State--and refuse to pay their quota into its treasury? Do not they stand in same relation to the State that the State does to the Union? And have not the same reasons prevented the State from resisting the Union which have prevented them from resisting the State?

How can a man be satisfied to entertain and opinion merely, and enjoy it? Is there any enjoyment in it, if his opinion is that he is aggrieved? If you are cheated out of a single dollar by your neighbor, you do not rest satisfied with knowing you are cheated, or with saying that you are cheated, or even with petitioning him to pay you your due; but you take effectual steps at once to obtain the full amount, and see to it that you are never cheated again. Action from principle, the perception and the performance of right, changes things and relations; it is essentially revolutionary, and does not consist wholly with anything which was. It not only divided States and churches, it divides families; ay, it divides the individual, separating the diabolical in him from the divine.

Unjust laws exist: shall we be content to obey them, or shall we endeavor to amend them, and obey them until we have

succeeded, or shall we transgress them at once? Men, generally, under such a government as this, think that they ought to wait until they have persuaded the majority to alter them. They think that, if they should resist, the remedy would be worse than the evil. But it is the fault of the government itself that the remedy is worse than the evil. It makes it worse. Why is it not more apt to anticipate and provide for reform? Why does it not cherish its wise minority? Why does it cry and resist before it is hurt? Why does it not encourage its citizens to put out its faults, and do better than it would have them? Why does it always crucify Christ and excommunicate Copernicus and Luther, and pronounce Washington and Franklin rebels?

